

# URDAIBAI

2021  
zenb. 25

© MAGAZINE

## ETXE BILA Urdaibain

| KURUTZEBIDEAK URDAIBAICO PAISAIAN

| ELKARRIZKETA. **AINARA BASURKO.**  
*EKONOMIA SUSTATZEKO SAILAREN FORU DIPUTATUA*


| NABARNIZEKO ANDAIZARA

| TEODORO ANASAGASTI, MODERNISMOAREN  
ERREFERENTEA

| SASIAK, GITXI ESTIMATUAK, OSASUNTSUAK  
ETA GURAGARRIAK

| BALTSEOA, BESTE GARAI BATEKO DANTZA

# Autorako Mailegu berdea



ITN%5  
UTB\*%5,77

(Epea: 60 hilabete)

**Maileguak kutxabank**   
Garapen iraunkorra aukeratzen dutenentzako onurak



[www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es)

\* Maileguaren adibidea: 60 hilabeterako epea; 10.000 euroko zenbatekoa. ITN: %5,00 UTB: %5,77. Hileko kuotak: 188,71 € (azken kuota 188,85 €). Interesak: 1.322,74 €. Kostu osoa: 1.472,74 €. Zordundutako zenbateko osoa: 11.472,74 €. UTB epearen arabera bata edo bestea izan daiteke, irekitze-komisioa ehunekotan dagoelako. Epeei buruzko beste adibide batzuk 10.000 euroko zenbateko berarekin: - Gehieneko epea: 84 hilabete; gutxieneko UTB: %5,59; Hileko kuotak: 141,34 € (azken kuota: 141,25 €). Interesak: 1.872,47 €. Kostu osoa: 2.022,47 €. Zordundutako zenbateko osoa: 12.022,47 € - Gutxieneko epea: 3 hilabete; gehieneko UTB: %15,12. Hileko kuotak: 3.361,15 € (azken kuota: 3.361,16 €). Interesak: 83,46 €. Kostu osoa: 233,46 €. Zordundutako zenbateko osoa: 10.233,46 €. Ibilgailu ekologikoa erosteko edo, eraginkortasun energetikoa hobetzeari begira, etxea berritzeko mailegua. Frantziako amortizazio-sistema. Irekitze-komisioa: %1,5. Kutxabankek aurretik aztertu eta onartu behar ditu baldintzak. Erakundearen ikuskatzailea: Espainiako Bankua. Erakunde Mailegu-emailea: **KUTXABANK SA**, Kale Nagusia 30-32, 48009 Bilbo, IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta: Tomoa: 5226 ; Liburua: 0; Orria: BI-58729; Folioa: 1; Inskripzioa: 1.

## UNIBERTSO HURBILA

Zenbaki honetan ez genduan pandemiak hitz egin gura, baina geure baitan begiratzea eta duela hamalau hilabete izandako planak non geratu diran baloratzea "koronavirus" berbagaz laburbiltzen dira. Errealitate hau da, halaber, gizarteak maila guztietan erreakzionatzeko gaitasun handia aktibatu dauen palanka.

Gauza asko aldatu dira, gure bizitzako funtsezko alderdiak eta garrantzi gutxiagoko beste batzuk baloratzeke erispideak aldatu dira. Perspektibak desagertu dira eta etorkizuna lainotu da. Pandemia baten erdian bizi gara, eta apurka-apurka gainditzen ari gara gizabanako eta kolektibo mailako ondorio pertsonalek. Pandemiak pertsonak banatu dauz eta fisikoki isolatu gaitu, baina distantziak lotura emozionalak eta sozialak indartu dauz. Osasuna, enplegua, ekonomia, etxebizitza, kultura eta aisia faktore erabakigarriak dira aurrera jarraitzeko, batzuk fisikoki beharrezkoak eta besteak emozionalki ezinbestekoak. Hauek guztiak zaindu behar doguz, eta horretan ari gara. Bat-batean, erantzukizun barriak hartu doguz. Norbanakoen, enpresen eta erakundeen borondateak eta esfortzuak batu doguz. Gainditzeko gaitasuna, indarra eta irudimena be irabazi doguz.

Busturialdea-Urdaibai emaitza positiboak lortuz egoera txarretara egokitzeko gaitasuna daukon erkidegoa gara. Hilabete hauetan ezagutu dogu zer egiteko gai garen eta, horri erreparatu barik, zer izan dogun beti gertu. Inguratzen gaituen onaz jabetuz gero, hobeto zainduko dogu.

Eutsi eta berrasmatu gara. Gure unibertsoa aldatu egin da, ez da txikiagoa, hurbilago dago. Danon artean hobea izatea lortuko dogu.



### ARGITARATZAILEA

NUEVA EUROPA S.L  
Carlos Gangoiti, 15, bajo  
Gernika-Lumo (Bizkaia)  
nuevaeuropa@nuevaeuropa.com  
www.nuevaeuropa.eus

### HARPIDETZA

Aldizkaria jaso nahi badozu, gugaz harremanetan jarri hemen:

urdaibaimagazine@nuevaeuropa.eus  
tel.: 94 625 06 06

[www.urdaibaimagazine.eus](http://www.urdaibaimagazine.eus)

URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA S.M-REN LANTALDEAK BURUTU DAU

Urdaibai Magazinek ez dauz bere gain hartzen hirugarrenen emondako eritxiak edo egindako komentarioak.


LEGE GORDAILUA: BI-153-2015

Aldizkari honek **Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntza jaso dau.

**PUBLIKAZIOA DATA:** 2021.05.21



## AURKIBIDEA



- 04** ERREPORTAJEA. Etxe bila Urdaibain.
- 11** KOLABORAZIOA. Jose Mari Unamuno.
- 12** DANONARTEAN.
- 18** VISIT URDAIBAI. Kurutzebideak Urdaibain.
- 20** ELKARRIZKETA. Ainara Basurko.  
*BFAko Ekonomia Sustapenerako diputatua*
- 24** LEKUKO. Nabarnizko andaizara.
- 26** KALERIK KALE. Teodoro Anasagasti.
- 28** SALTSA PORRU. Bildotsa.
- 30** BERDEAN. Sasiak.
- 32** BETI JAI. Baltsea.

# ETXE BILA

## Urdaibain

Pandemiak non bizi garen baloratzen erakutsi deusku. Gure etxeak trintxerak bihurtu ziran, eta bertatik ikusi dogu mundua, geure leihoen, balkoien eta zorte handikoek terrazetatik edo baserri zein txaleten lursailetatik begiraturaz. Etxebizitza eskubidea izateaz gain, buruhauste be bihur daiteke. Independizatze gogo daukeen gazteek, hazten ari diran familiak, etxea hemen bilatzen daben etorkinek, edo, beste barik, aldaketa bat gura dabenek... Higiezinaren sektorearen kurba mugiarazten daben aldagaiak dira geure gustuak, beharrrak eta egoera ekonomikoa.

**U**rdaibai bizitzeko leku ona da. Balio handiko landa-eremuak, hirigune atseginak eta zerbitzuak daukezenak, brisa eta itsas zaporea arnasten den kostaldeko herriak..., bizitzeko gune idilikoa da Urdaibai, etortzera gonbidatzen dauena eta asko geratzeko etortzen dira. Baina, ba al dago Urdaibain guztiontzako etxebizitza nahikorik?

Eskualdeko higiezinaren sektorea (etxe-agentziak) da errealitate hau ondoen ezagutzen dauena *"etenbako merkatu-jarioa da, eskaintza gehiago balego prezioak neurrikoagoak izango litzateke. Gernika-Lumoko erdigunean, esaterako, etxebizitza-eskaintza urria da, baita alokairuko etxebizitzaren eskaintza be"*, azaldu dau Gernika Inmobiliariak. Egia esan, eskaintza erlatiboa da, bakoitzak bilatzen dauenaren eta erosteko edo alokatzeko aurrekontuaren arabera. *"Pisu batetik familia bakarreko etxebizitzara aldatu gura dauen jendeak, normalean, aurrekontu justuegia dauko, eta gehienek ez dabe aurkituko bilatzen daben etxea euren aukera ekonomikoen arabera"*, nabarmendu dabe Bermeo Best-House-koek. Eskualdeko etxebizitza-eskaintzari dagokionez, Iturggesek saltzerakoan askok daukeen mesfidantza aipatzen dau, *"Gaur egungo eskaintza ez da nahikoa, pandemiarekiko beldurra gehiago nabaritzen baita saltzaileengan erosleengan baino. Saltzaileek itxaron egin gura*

*dabe, urtebete edo bi urte barru etxeagatik diru gehiago lortuko dabela uste dabelako"*. Beste batzuk irmeagoak dira; Macias higiezinaren enpresak *"eskaintza nahikoa"* dala adierazi dau; Hirulugerrek, barriz, Urdaibaiko eskaintza *"erabat ez da nahikoa, eskaintza gehiago behar dogu"* adierazi dau. Eta alokairu-eskaintzaz berba egitean, guztiok pentsamoldea aldatu dogula aipatzen dabe batzuek: *"Alokairuko pisuak dagoz, baina askok ez dakite alokairuan bizitzen. Bakoitzaren egoera erlatiboa da, alokairu sozial gehiago beharko litzateke"*, azaldu dabe Bermeo Inmobiliaria-koek.

Baina eskaintza mugatua izanda, zer eskatzen dogu gehien Urdaibain? *"Gernika-Lumoko eta Bermeoko herri nagusietako etxebizitzak dira gehien eskatzen direnak"*, esan dau Gernika Inmobiliariak. Gehien eskatzen diren guneei begiratuta Gernika-Lumo eta Bermeo, hirigune handiak nabarmentzen dira: *"Higiezinaren parkearen zatirik handiena bigarren etxebizitzarako erabiltzen den herrietan, transakzio gutxiago egiten dira, eta, kasu gehienetan, prezioaren beherapen handiak egin behar izaten dabez saldu ahal izateko. Salbuespen bat Mundaka da, bertan bigarren etxebizitza eta inbertsiorako eskari handia baitago oraindik"*, adierazi dabe Iturggesetik. *"Bermeo bezalako gunetan, gehien eskatzen dana herriguneko ohiko etxebizitza da, pisuak. Halan be, gora egin dau familia bakarreko etxebizitzaren edo lursailari >>>*

*Alokairuan  
Bermeok pisu  
merkeagoak  
eskaintzen dauz  
Gernika-Lumok  
baino.*



*atxikitako etxebizitzaren eskariak. Busturialdean etxebizitza eskaera handia dago, baina aurten agian eskari gutxiago dago bigarren etxebizitzan\*, nabarmendu dabe Bermeo Best-Housetik. "Urdaibain jendea autoz joan-etorriak ekiditen saiatzen da, horregatik eskaera Gernika-Lumon dago. Udalerri mugakideetan, eskaera txikia lorategi edo lursail eraikigarria dauken etxebizitzetan dago, baina garestia da", nabarmendu dabe Gernika Inmobiliarian. Busturialdeak etxebizitza bilatzen dan tokia izaten jarraitzen dau, "etxebizitza-eskaera handia dago, bai pisuena, bai kanpoaldeak daukeen etxeena. Gehien eskatzen direnak pisuak dira, baserriak edo txaletak baino merkeagoak diralako", azaldu dabe Hirulugerretik.*

## ETXEBIZITZA, ERRESILIENTZIA ETA COVID

COVID-19ren osasun-krisiagaz, etxebizitza babesleku eta bizikidetzarako, lanerako eta aisiarako espazio bihurtu da etxeko kide guztientzat. Gehienok egokitu egin behar izan dogu, gure etxeetan lehen gutxiegi erabiltzen ziran espazioak (balkoiak, pasilloak edo trastelekuak) birmoldatuz eta balioan jarriz, "terrazza", "gimnasioa" edota "bulegoa" izateko. Horrek gure ikuspegiaren oinarriak mugiarazi dauz eta barriz pentsatu behar izan dogu gura dogun tokian, ahal dogun tokian edo beharko geunkean tokian bizi garen ala ez.

Pandemiak norabidea eta ikuspuntuak aldatu deuskuz guztioi, baita higiezinaren sektoreari be. Higiezinaren Jabetza-Agenteen Bizkaiko Elkargo Ofizialak egindako laugarren hiruhilekoko (2021eko otsaila) Euskadiko higiezinaren merkatuaren txostenaren datuen arabera, nahiz eta "higiezinaren merkatuan eragina izan dau koronabirusaren

*berragerraldiak, baina nahiz eta salerosketa-eragiketarako murriztu diran nolabaiteko normaltasunez egin ahal izan dira". Euskal Autonomia Erkidegoan 2020ko 4. hiruhilekokoan 4.361 salerosketa erregistratu dira, aurreko hiruhilekoagaz alderatuta -% 7,35 gutxiago. Bereziki etxebizitza barriak eragindako beherakada, -% 26,16 jaitsi baita. Erabilitako etxebizitzaren beherakada apalagoa izan da, -% 2,58. Azken urtean 17.876 salerosketa izan dira, aurreko urtean baino % 12,93 gutxiago. Horrela, azken urtean 8,21 salerosketa egin dira mila biztanleko. Bizkaira begiraturaz gero, lurralde honetan izan dira Euskadi osoko salmenten ia erdiak, 8867 salerosketa guztira (guztizkoaren % 49,60).*

Etxeak saltzen jarraitzen da, baina zenbat kostatzen da erostea? Batez beste, 241.238€ kostatzen da Euskadin etxebizitza bat erostea, % 8,76 igo baita aurreko urteagaz alderatuta. Bizkaian, batez besteko zenbatekoa 237.083€koa da. Baina non bizi gura dogun, eremuak zuzenean eragiten deutso prezioen indize horri. Urdaibain ez da gauza bera Gernika-Lumon edo Busturian edo Bermeon erostea. "Alokairuetan, adibidez, Bermeok Gernika-Lumok baino etxebizitza merkeagoak eskaintzen dauz: Gernika-Lumon 700€ balio dauena Bermeon 500 €-ren truke aurkitu ahal dozu", nabarmendu dabe higiezinaren agentziekin.

Higiezinaren atari ezagun batek 2021eko martxoan egindako Bizkaiko salmentako etxebizitzaren prezioaren bilakaerari buruzko txostenaren, etxebizitzaren prezioak honako hauek dira: 1901€/m<sup>2</sup> Bermeon (hiruhileko aldaketa +%2,4 - gehieneko historikoa 2012ko urtarrila: 2594 €/m<sup>2</sup>); 1617€/m<sup>2</sup> Busturian (hiruhileko aldaketa -%2,8 - gehieneko historikoa 2012ko uztaila: 2507€/m<sup>2</sup>) edo 2121€/m<sup>2</sup> Gerni-



Etxebizitzaren eraikuntza Bermeon.





ka-Lumon (hiruhileko aldaketa -%1,4- gehieneko historikoa 2012ko ekaina: 2680€/m<sup>2</sup>). Zifra-dantza hori erlatiboa bada be, eroslearen arabera, "Hilabete berean etxebizitza bat saldu daiket 77.000 eurotan eta txalet bat 750.000 eurotan", kontatzen dabe Bermeotik.

Etxebizitza baloratzeko modua aldatu dogu, eta horrek isla dauko geure etxea gura dogun ala ez planteatzerakoan. Bermeo Inmobiliarian horrela kontatzen deuskue: "Pandemiaren aurretik askok ez eben pentsatzen etxez aldatzea, baina hainbeste denbora etxean emon ondoren, batzuek pentsatu egiten dabe. Lehen 3 gela edukitzeagaz nahikoa bazan, orain laugarren gela bat bilatzen dabe salatik telelana egin behar ez izateko. Batzuek bigarren garajea saldu dabe, bigarren autoa saldu behar izan dabelako". Lehentasunak be aldatu egin dira pandemiaren ostean "lehen igo-gailua eukezen etxebizitzak eskatzen ziran eta orain argitasuna gehiago baloratzen da. Gehiago baloratzen dogu bizitzeko leku polita izatea, gehiago estimatzen dogu bizi-kalitatea".

Etxebizitza edo etxe bila ari diren gehienek, denbora luzez etxean geratu behar izan dogun pandemia bizi izan ondoren, kanpoaldea edo balkoia daukeen etxebizitzak bilatzen daben arren, egia esan, familien egoera ekonomikoak geldiarazi egiten dauz aukerak, "pandemiaren ondorioz, kanpoaldea daukeen etxebizitza gehiago eskatu dira, baina familien finantza-errealitateagatik, azkenean, askok atzera egiten dabe eta balkoi zabaladun pisu bat erostegaz konformatzen dira. Balkoi bako etxebizitzek ez dauke eskaririk", azaldu dabe Hirulugerretik.

Gehien eskatzen dana pisuak dira, baina osasun-krisiak bete-betean eragin deutse gure beharrei eta lehentasunei bizitzeko

etxe bat bilatzeko orduan. "Gehienek pisia bilatzen dabe, baina landa inguruako etxeen gero eta eskaera gehiago dago. Gernika-Lumon, COVIDen ondorioetako bat baserrien eta landa-etxebizitzaren eskaria ugaritzea izan da", nabarmendu dau Macias Inmobiliariak.

Udalerrri nagusiak ez diren eremuetan, bigarren etxebizitza goranzko aukera da. "Sakabanatutako eta hain urbanoak ez diran guneetan eskaera igotzea eragin dau pandemiak. Aste Santu honetan, batez be, bigarren etxebizitzaren eskaria hazi egin da Busturian", adierazi dabe Gernika Inmobiliariatik.

Zalantza barik, kanpoaldeagaz kontaktuan dagozen guneak dira oso eskatuak. "Bilatzen dana garbia eta eguzkitsua da, balkoiagaz", nabarmendu dabe Bermeo Inmobiliariatik.

Pandemiaren ondoren "jendea bere etxea gehiago baloratzen hasi da, eta lehen hainbeste kezkatzen ez ginduezan ezaugarri batzuk daukozen edo ez, kezka sortu jaku balkoi edo terraza bat, lorategi txiki bat nahiz eta komunitarioa izan. Prezioei dagokiernez, bilakaera desbardina izan da etxebizitza motaren arabera. Ezaugarri jakin batzuk daukozen eta gaitasun ekonomiko handiagoko jendeari zuzenduta egozan etxebizitzek prezioei eutsi deutsee, eta gorakada txikiak be izan dabez. Ostera, igogailu bako, balkoi bako edo ezaugarri xumeagoak daukezan etxeen kasuan prezioak jaitsi egin dira. Horreek erosteko inbertitzaileak erakarrit, gero alokairuan erabiltzeko. Izan be, oindino be alokairu eskari handia dago, aspalditik bizi dogun eskaintza-arazo larria dala eta", azaldu dau Iturgges higiezinaren enpresak.

Pandemiak geure plan guztiak nahasi dauz, baita Euskadiko 2018-2020 >>>



aldirako Etxebizitzaren Gida Plana be. Plan horrek Euskadiko etxebizitza-politikaren filosofia, programak eta konpromisoak jasotzen ebazan legegintzaldiaren amaierara arte. Izan be, azken ebaluazioaren txostenean jasotzen danez, pandemiak eragina izan dau Plana gauzatzeko azken ekitaldian. *"Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetzak ezohiko neurriak hartu dauz egoera ekonomiko ahulean dagozen pertsoneri onorio horreek arintzeko, hala nola babestutako alokairu publikoak ordaintzetik salbuestea edo etxebizitza librean alokairua ordaintzeko laguntzak emotea. Agertoki pandemiko horrek, lotutako konfundamenduagaz, baldintzatu egin dauz, jakina, 2020an lortutako emaitzak, programa batzuetan espero ziran helburuak lortu ez dira eta. Halan be, horrek ez dau eragotzi, oro har, 2018-2020 Etxebizitzaren Gida Planaren betetze-maila handia izatea".* Besteak beste, alokairu babestuko parkea nabarmentzen da, dagoeneko 25,823 etxebizitzana baita.

#### **HERRI TXIKIAK, BIZITZEKO OASIAK?**

Urdaibaiko joera, orokorrean, Gernika-Lumo eta Bermeoko udalerrri nagusietan etxebizitza bilatzea bada be, egia da gure herri txikiak oasi txiki lez agertzen direla orain, bizimodu lasaiagoa bilatzeko, aire zabaleko espazio handiekaz. *"Ibarrangelun beste kostako herri batzuen moduen bigarren etxebizitzaren presinoa dago. Covid egoera dala eta handitu egin dira enpardonamenduak ta herri txikietan bizitzeko fenomeno hori be emon da",* azaldu dau Jesus Mari Ziluagak, Ibarrangeluko Alkateak. *"Kohesio territorialari begira oso garrantzizua da geuretzako etxebizitza politika publiko aktiboak egotea. Herri txikiak bizirauteko zerbitzuek euki behar dabez eta lekuek bizitzeko. Ordun guk behar dogu halako politika publiko argiak etxebizitzaren aldetik, instituzino publikoek bultzatuta. Urdaibain are gehiago, Urdaibain bizitzeko eta lan egiteko, baina batez be bizitzeko jende gazteak eta jendeak behar dau etxebizitza. Amaitzeko, gu horretan bagabiz. Hori bada gure ildo estrategiko bat etxebizitzarena. Plan orokorragaz gabiz baina epe labur batera berbetan gauz guzti honeri irtenbide bat emoteko. Zerbitzu onak*

*eukitzea, sanidadean, hezkuntzan, arlo guzti horretan behar doguz herri biziak izan daitezten. Eta horretarako jende euki behar dogu hemen, gazteak, umeak,...hori da geure etorkizuna",* nabarmendu dau Ziluagak.

Busturialdeko herri txiki gehienak Hiri Antolamendurako Planetan sartuta dagoz, eta hauetan egungo eta etorkizuneko etxebizitza-beharrak funtsezkoak dira herriaren hazkunde jasangarria eta iraunkorra bermatzeko.

*"Garatzen ari garen HAPON, aurre aurre-irapen fasean, hutsik dagozen etxebizitza eta etxebizitza zaharren eraberritzea sustatu gura dogu. Kortezubin ez dogu manio- bra-tarte handirik, Gautegiz Arteagak eta padurek mugatzen baitabe gure lurraldea. Ez dogu hedatzeko lekurik. Enderikas da orain arte hazteko dogun gunea, gainerako herriguneez beren aukerak agortu da-bezelako",* azaldu dau Kortezubiko alkate Karmele Embeitak. Familiaren lurra edo baserriak aprobetxatzeko aukera irtenbide bihurtu da herriko bizilagun gazteenek beren herrian etxebizitza ezar daiezan. *"Lehen ezin zenduan zure etxea gurasoen etxearen ondoan egin. Lehen baserri handiak ezin ziran zatitu, orain legeak etxebizitzak zatitzea ahalbidetzen dau. Etxebizitza*



Elantxobe.



*Pandemiaren ondoren, etxe bila dabilenak kanpoaldea edo balkoia daukeen etxebizitzak bilatzen dabez, baina familien egoera ekonomikoak geldiarazi egiten dauz aukerak.*



Arratzuko landa gunea.

*Urdaibain, Gernika-Lumoko eta Bermeoko etxebizitzak dira gehien eskatzen direnak. Landa guneetako udalerrietan, bigarren etxebizitza goranzko aukera da.*

*batetik bi atera daikezuz eta bi etxebizitza daukezen etxeetatik lau atera daitezke. Bizilagun batzuek hori egin dabe hemen bizitzaren geratu ahal izateko." Alokairuko etxebizitzak be urriak dira Kortezubi bezalako herri txikietan. "Lehen, Udalak 6 etxebizitza eukoazan alokairuan herriarentzat, baina, udaletxea eraberritu ondoren, etxebizitza hoietako bat geratu zan, herrian premia larria izanez gero erabili ahal izateko, baserriren bateko sutea, adibidez".*

Gure herri txikietan, bizilagunen eta udalaren arteko harremana bereziki hurbila da; horregatik, herriaren etorkizuneko hazkundea diseinatu eta planteatzeko orduan, Hiri Antolamendurako Plan Orokorretan islatuta, oso kontuan hartzen dira herriaren benetako beharrak. Errigoitin, adibidez, prozesu horretan murgilduta dagoz, "Errigoitin HAPO-a lantzen gabiltza. Bestetik, Eleizalde auzoan 8 etxebizitza alokairu sozialean erregimenean erakitze-

*ko ekimenetan gabiltza, geldoa bada be. Gure herrian, gaur egun, dagozen alokairuak pribatuak dira, oso garestiak eta erai-kinak, sarritan, egoera tamalgarrian egoten dira. Herriko gazteek, gaur egun, Gernikara jotzen dabe. Bestetik, etxe hutseei eta bigarren etxebizitzei, legediak baimentzen dabezen zerga gehikuntzak ezartzen deutseguz" azaldu dau Itziar Amezaga, Errigoitiko Udalaren Zinegotzia.*

#### **NORK EROSTEN DAU ETXEA BUSTURIALDEAN?**

Euskal Autonomia Erkidegoan, azken hiruhilekoan, etxebizitza erosketen %2,53 atzerritarrei dagokie; nazionalitateei dagokionez gehienak errumaniarrak dira (% 20,20), gero txinatarrak (% 6,98) eta frantziarrak (% 4,49). Bizkaia da nagusi honetan: atzerritarrek egindako etxebizitza -erosketak % 2,70koa izanda. Urdaibain, gainera, nabaritzen hasi da orain ez garelako eskualdeko biztanleak bakarrik >>>



Etxebizitza salgai Gernika-Lumon

*Familiaren lurrak  
edo baserriak  
aprobetxatzeko  
aukera irtenbide  
bihurtu da herriko  
bizilagun gazteenek  
beren herrian  
etxebizitza ezar  
daiezan.*

hemen etxebizitza bila gabiltzanak, "Lehen Bermeon bermeotarrek bakarrik bilatzen eben etxebizitza; orain, barriz, eskaria beste eremu batzuetatik iristen da, besteak beste, Barakaldotik, Mungiatik, Sestaotik", adierazi dabe Bermeo Inmobiliariatik.

"Orokorrean, 50 urte artekoak bilatzen dabe etxebizitza hemen. Bikote zaharrenek prestazio hobekak gura dabez etxebizitzaz aldatzeko, eta batzuek aurrezkiak inbertitzeko erosten dabe. Lan merkatuan hasten ari diran eta inbertsio lez etxebizitza bilatzen ari diran gazteak be badagoz, normalean ezkonbakoak", azaldu dabe Gernika Inmobiliariatik.

#### ALOKATU ALA EROSI?

"Erosteak lehen aukera izaten jarraitzen dau, baina alokairuak asko eskatzen dira hiriguneetan. Pandemiaren ostean familia bakarreko etxebizitza bilatzen ari diran eta baliabide nahikorik ez daukeen familien kopuruak gora egin dau; beraz, erosteko aukera daukeen alokairuko etxebizitza eskaera handia da ", azaldu dau Bermeo Best-Housek.

"Alokairua eta erosketa eskatzen dira, baina gure gizartearen errealitatea da erosteko joera handiagoa dogula ", aipatu dabe Hirulugerretik.

"Alokairuari dagokionez, guk asko zaintzen dogu bezeroa. Higiezinaren sektorean kalte handia egiten ari dana etxebizitza turistikoa da. Egia esan, alde batetik kalte egiten deusku, baina, bestetik, fenomeno horri esker, etxebizitza zahar asko eraberritzen dira eta tokiko ekonomia berreskuratzen da ", adierazi dabe Bermeo Inmobiliariatik.

"Familia bakarreko etxebizitza erosketa bidez erosi da beti, baina orain jende askok alokairua eskatzen dau erosteko aukeragaz. Alokairu merkatuan eskatzaile nagusiak etorkinak dira, eta asko kostatzen jake etxebizitza aurkitzea ", esan dabe Gernika Inmobiliariatik.

Euskadiko higiezinaren merkatuaren azken txostenaren arabera, 2020an 2.189.490 pertsona bizi ginan Euskal Autonomia Erkidegoan ( %93,37 nazionalak eta %6,63 atzerritarak) eta 907.000 etxe egozan erregistratuta: hoietatik 480.000 Bizkaian. Etxebizitza gehienak pertsona gutxiz beteta dagoz: pertsona bakarreko etxeak (253.000), 2 pertsonakoak (292.000), 3 pertsonakoak (179.000), 4 pertsonakoak (145.000), 4 pertsona baino gehiagokoak (37.000). **UM**

**LOGÍSTICA**

GARRAIOA,  
BILTEGIRATZE,  
BANAKETA...

Txaporta industrialdea, 2-1  
48300 Gernika - Lumo  
(Bizkaia)

Tel. 94 625 03 65  
Tel. 94 625 75 40  
e-mail: lgk@lgk.es

Arrien Optika

Urkieta k. 10

Tel./Fax: 946 25 63 63

Email: arrienoptika@yahoo.es

# ARRANO ARRANTZALEAGAZ *ametsetan*

## JOSE MARI UNAMUNO

*Urdaibai Bird Center*

80ko hamarkadan, egun batean, Busturiako paduratik nebagaz, gizon bat aurkitu genduan kamuflaje-oihal baten barruan. Hark esan euskun arrainak arrantzatzen uretan murgiltzen zan arrano bat grabatu nahian ebilela. Enrique Franco zan, Urdaibaiko lehen naturalistetako bat.

Urte batzuk geroago, 1989an, Gernikako Kultur Etxean, Aitor Galarza biologo bategi Urdaibaiko hegaztiei buruzko liburu bat aurkeztu eban. Handik liburua sinatuta atera ginan, hegaztien pozoia haziarekin eramanen genduala jakin barik.

1995ean izan neban arrano arrantzaleagaz lehen topaketa. Enrique Francok urte batzuk lehenago egin eban bezala, kamuflaje-oihalaren barruan 30 segundoz gozatu ahal izan neban haren presentzia, 10 metro eskasera. Esperientzia hori betiko grabatuta geratu jatan.

2006ko abuztuan, Edorta Unamunogaz batera, Ingalaterrara joan ginan, Rutland Waterren egiten zan Munduko Azoka Ornitologikorik handiena ikustera. Surrealista samarra izan zan, Urriko Azken Astelehena bezala, baina guztia hegaztien munduari eskainia. Eta han Azokako erregea arrano arrantzalea zan. 2001ean, Ingalaterran arranoa hazten zan lehen aldia izan zan urte askoan, eta milaka pertsona horreekin guztiek gurtzen eben harrapari hori. Urdaibain barriz sartzeko sugarra eta ilusioa piztu zan han.

2008ko martxoaren 31n argazki batzuk atera neutsazan bizkarrean GPS satelitea zeraman arrano arrantzale bati. "Logie" zan. Arrano arrantzale ospetsua, BBK Eskoziatik interes handiz jarraitzen eban. Hortik aurrera, Aitor Galarzaren zuzendaritzapean, Urdaibaiko arrano arrantzaleak Eskoziako Highland Foundationetik datozen arranoekaz Urdaibain berreskuratzeko proiektu bati ekiteko aukera aztertzeko hasi ginan.

Urdaibai Bird Center martxan egoala, 2013ko uztailaren 10ean ekarri genduzan Urdaibain arranoa barriz sartzeko ta berreskuratzeko lehen kumeak. 8 urteko proiektuaren ondoren, ingurumen-hezkuntza, natura-turismoa eta kontserbazioa 3 helburuetatik ... Lehenengo biak arrakasta handia izan eben, baina hirugarrena egiteke geratu zan.

2020ko udaberrian, konfinamendu batean, iritsi zan Roy, urtero bezala, hazteko emerik aurkitu barik. Baina hau sorpresa, Landa agertu zan... 2 urteko neska gazte frantses bat, oraindik umatu ezin zana.

Arrano-bikote hau monitorizatzen pasa gendun konfinamendu hura ahazteazina izan zan. Habia materiala eramate, Roytik Landara arrain eskaintza etengabekoak egitea, kopula saiakerak, hau da, 2021ean Urdaibain arrano arrantzaleen ugalketa arrakasta handia izan eitekeena sortzen ari zan.

Azkenik, 2021 honetan dana prest utzi gura izan genduan Urdaibai Bird Centerreko taldeak ez ezik, mundu guztiak bere etxetik esperientzia ahazteazina gozatzeko aukera izan eian, nik 80ko hamarkadan izan nebazan bezalakoak. Roy eta Landa Afrikatik itzultzea besterik ez zan falta, eta itzuli egin ziran.

Lerro hauek idazten ari naizen bitartean, Royk eta Landak hirugarren arrautza jarri dabe, ez dakite milaka pertsona konektatzen dirala egunero euren etxeetatik. Natura ezin da aurreikusitua, baina Urdaibain jaiotako arrano arrantzale bat ikusteko ametsa gero eta gertuago dago. ■



Roy eta Landa bere arrautzakak habian. **Argazkia:** Urdaibai Bird Center.

## ARRATZUKO UDALA



## ARRATZUK OINEZKOENTZAKO LOTURA ERAIKIKO DAU UARKA AUZOAN

Arratzuko Udalak beste proiektu bat gehitu deutso mugikortasun iraunkorreko planari. Auzo guztiak oinezkoentzako eta bizikletentzako bideekaz lotzeko estrategia global aurreratuaren esparruan, Uarkan, BI 2224 errepidean, 1,5 metroko espaloia eraikiko dau. Proiektuaren arabera, oinezkoentzako pasabide bat egingo da Golako ibaiaren gaineko zubiaren parean, BI 3242 errepidean. Azpiegitura hau oso beharrezkoa da errepide-zati horretan oinezkoen segurtasuna bermatzeko. Galtzada bereziki estua da eta ez dauko bazterbiderik, eta hainbat etxebizitzaren sarbidea da. Etxebizitza hoietako bizilagunek 200 metro baino gehiago egin behar dabez errepidetik, autobus-geltokira edo bidegorrira iristeko. Obra Golako ibaitik gertu dagoenez, bisoi europarraren habitataren babes bereziko gunea, jarduteko beharrezko distantziak markatu dira, eta lanak hazkuntza-garaitik kanpo egingo dira, hau da, iraila eta martxoa bitartean. Arratzun bidegorri-sare zabala dago dagoeneko, Arratzuko bizilagunek eta inguruko herrietakoek asko erabiltzen dabeena, bere irisgarritasunagatik eta konektagarritasunagatik.

## BERMEOKO UDALA

## BERMEOKO UDALAK SAIHESBIDEA ETA HERRIGUNEAREN ARTEKO LOTURA BERRIA ZABALDU DU UDALERRIKO IRISGARRITASUNA HOBETU ALDERA

Bermeoko Udalak joan den apirilaren 19an zabaldu zuen saihesbiderako Tellaetxe tar Josu kaleko lotura. Horretarako, lan garrantzitsuak egin dira azken hilabeteetan. Izan ere, aipatu lanaren ardatza, herriko sei kaleen eta saihesbidearen arteko zirkulazioa antolatzea eta bidegorutzean egin beharreko lanak izan dira. Hori horrela, Udalak, 276.612,23 euro bideratu ditu. Lotura honen helburua, besteak beste, herriko hainbat gunetako trafikodentsitatea txikitzea izan da, herritarren segurtasuna handitzea eta ondorioz, bermeotarren bizi-kalitatea hobetzea.

Esan bezala, herriko sei kaleen bidegorutzean hobekuntzak gauzatu dira eta ibilgailuen zein oinezkoen joan-etorriak antolatzen laguntzeko semaforoak jarri baita ere. Trafikoa ere berrantolatuta da, herriko kale batzuetako trafiko norabideak aldatuz.

Horrez gain, 12 plazako doako aparkaleku birakaria, edukiontzi, zerbitzu guneta eta seinale bertikal berriak instalatu dira, lurrean ere seinaleak margotzeaz gain.

Lan horiei esker, herriko zeharkaleetatik ibili gabe, herritarrek, Bermeora sartzeko eta irtetzeko aukera izango dute eta era berean, herriko erdiguneko trafikoa arinduko da.



## BUSTURIKO UDALA



### BUSTURIAK PAUSU HANDIAK EMOTEN DAUZ GENERO-BARDINTASUNERANTZ

Emakume eta Gizonen Bardintasunerako 2. Plana, duela gutxi aho batez onartua, Busturiako Udala bardintasunerako "aldaketa positiboaren" prozesuan murgilduta dago. Plana udal-langileei, herritarrei eta herriko kultura-taldeei egindako elkarrizketen eta kontsulten bidez egindako diagnostikoan oinarrituta garatu zan. Elkarrizketa eta kontsulta hauek benetako egoeraren "argazki panoramikoa" emon eben, bardintasunari dagokionez. Aldi berean, eta lan egiteko espazio zabal eta espezifikoa bat behar zenez, Emakumearen Kontseilua sortu zan; eta Udalean eta Udaletik kanpo Planaren ezarpena indartzeko, Busturiak bardintasun-teknikari bat dauko orain. Udal-kudeaketaren esparruan, aurrera egiten da udal-langileen formakuntzan eta sentsibilizazioan, besteak beste, hizkuntzaren erabilerari dagokionez edo genero-ikuspegia kontratazioan txertatzeari dagokionez, emakumeek eta gizonak sartzeko aukera berberak izan daiezan. Herritarrei dagokienez, udalak honako hauek azpimarratzen dauz: emakumeen ahalduntzea sustatzea, zaintza bizitzaren erdigunean jartzea eta indarkeria matxistaren prebentzioa. Horretarako, tailerrak prestatu eta antolatuko dauz, emakumeek eta gizonak trebetasun berberak eskuratu ahal izan daiezan, eta genero-indarkeriaren aurrean jarduteko protokolo bat sortuko dau.

## FORUKO UDALA



### FORUKO UDALAK SAN KRISTOBALEKO BASELEIZA KONPONTZEKO DIRU-LAGUNTZA EMON DAU, ETA GOTZAINDEGIAK UDALERRIARI LAGA DEUTSO HAREN ERABILERA

Foruko Udalak, 40.000 euroko diru-laguntza handiagaz, Foruko parrokiak eta Gondra Barandiaran Fundazioak San Kristobal baseleiza konpondu dabe, eta tenpluaren balio historiko eta kulturala baieztatu da obretan zehar gertatutako aurkikuntza garrantzitsuen ondorioz. 2000 urteko hiru harri zizelkatu agertu dira: ekialdean eta ipar-ekialdean, erromatar aurreko hilarri bana, eta ipar-ekialdeko horma, erromatar aldare bat izan daitekeen zulo bat duen harrizko bloke bat. Tenpluaren garrantzia dala eta, Bizkaiko Foru Aldundiak barrualdeko irudiak zaharbarritzeko konpromisoa hartu dau. Bestalde, Gotzaindegiak udalerritari laga deutso tenpluaren eta bere inguruaren erabilera, eta Foruari hainbat lursail emon deutsoz. Udalak lursail hauek egokitu eta bertoko arbolak landatuko dauz.



## GAUTEGIZ ARTEAGAK HERRIKO PLAZA BARRIZTUKO DAU

Gauegiz Arteagako Udalak proiektu handi bat jarri dau martxan, Herriko Plaza barriztau. Horretarako, *"Herriko Plaza eraberritze-ko proiektua idazteko kontratuaren esleipena"* lehiaketara atera dau, ingurunean integratutako espazio barri bat sortzeko helburuagaz, egungo eskakizunei erantzuteko. Herriko-plazaren kontzeptuari balioa emotea da asmoa, aisialdirako eta harreman soziokulturalerako gune gisa. Diseinu barriak eroso izan behar dau eta irisgarritasunaren, jasangarritasunaren, herritarren segurtasunaren eta erosotasunaren irizpideei erantzun behar deutse, ekitaldiak antolatu ahal izatea bermatzeaz gain. Epaimahaiak hiru ideia finalista aukeratu dauz, eta proiektu horrek auzotarrei erakutsiko jakez, gogokoena hauta daiezan. Azken irizpenak (120 puntu) epaimahaiaren aurretiko balorazioa (100 puntura arte) eta herritarrek emondako puntuazioa (20 puntura arte) jasoko dauz. Gauegiz Arteagako Herriko Plaza erdigunean dago eta bertan udaletxea, Kultur Etxea, frontoia eta Herriko Taberna dagoz, baita aparkaleku bat be.



## GERNIKA-LUMOKO 15.800 M2 DITUEN LANDARETZA GUNEA DU

Santa Luzia parkea herriak dituen birika berdeetako bat bihurtu da gauzatu den birmoldaketari esker, eta baseliza eta eskola bezalako eraikin enblematikoei balioa ematea ere lortu da.

15.800 metro karratuko azalera du, eta hainbat ekipamendu ditu, hala nola karrejo bat, umeentzako jolas-eremu bat, guraso edo zaintzaileentzako gunearekin, ermitaren parean, eta, haren ondoan, iturri lehor bat, 14 zurrustarekin. Berdegunearen beste muturrean zuhaitziak dituzten bi bide daude, eta horien barruan piknik-gune bat dago.

Guneak hainbat erabilera ditu, eta, beraz, bizilagun guztien aisialdi-premiei erantzuten die, baina, batez ere, inguruan bizi direnei, azken urteotan biztanleria nabarmen handitu baita. Santa Luzia parkearen eraldaketa egin da, aisialdi-gunea eta bizitegi-multzoa osatzen dituzten ekipamendu guztiak eduki ditzaten, Alemaniako "siedlung" edo Vienako "hoff" direlakoek osatzen dituzten ekipamendu berdinak.

Era berean, bainugela publikoak ditu hiri-auzoan dagoen kapera zaharrari erantsitako eraikinean, eta eremu estali bat du eraikin beraren barruan, baina zerbitzu publikoetarako sarrera independentea du. Euria egiten duenean egonleku gisa erabiltzen den espazioa. Proiektuak erdialdean egondako haritz-masa erresetatu egin du, eta barrutiko argien sistema osoa eraberritu du. Aisialdiko eremu horrek zentro soziokultural bat ere badu, eskolen eraikin zaharrean kokatua. 290 metro karratuko azalarekin, hirugarren adinekoentzako espazio bihurtu da, baina baita erabileraren desberdinetarako ere, hala nola irakurgela, erakusketak edo proiektzioak egiteko gela, edo hitzaldiak emateko gela, besteak beste.

## BARNE-TURISMOAK IBARRANGELUKO SAN ANDRES EZAGUTZEN DAU

Orain gitxi zendu dan Gianluigi Colaluchik, Kapera Sixtinoaren zaharberritzaileak, Ibarrangeluko San Andres Eleiza "Euskal Ar-tearen kapera Sixtinoa" zala esan eban, eta horrek herriko erakar-garritasun turistikoa areagotu dau. Barruan gordetzen dauen egur polikromatuzko gangak interesa pizten dau bertokoen eta kanpotarren artean, [www.visiturdaibai.com](http://www.visiturdaibai.com) webgunetik, Parro-kiaren eta Ibarrangeluko Udalaren laguntzagaz, eskainitako eta zabaldutako bisita gidatuen eskariak islatzen dauenez. 2020an, turismoari hainbeste eragin eutsen pandemiaren eragin globa-la kontuan hartuta, Ibarrangeluk San Andres eleizaren barruko ondare erlijiosoa balioesten jakin daben turisten, bertokoen eta Estatuko turisten fluxua jaso dau, eta herriko erakargarritasuna kualitatiboki areagotu dau honek, Euskadiko hondartzarik ede-rrenetako bi izateagatik ezaguna. 2021.urte honetan, mugikor-tasun- eta edukiera-murrizketak gorabehera, San Andreseko kupularen gaineko interesa mantendu da, bere biodibertsita-teagatik berez erakargarria dan herria dinamizatzen lagunduz. Ibarrangeluko Udalak jasangarritasunaren alde egiten dau, kul-tura-turismoa bultzatuz bere ondarea baloratu eta errespetat-zeko tresna gisa, eta bisitariak garraio publikoaren eta baliabide jasangarrien bidez irits daitezcan bultzatu gura dau.



## LIBURUTEGIA, KULTUR TOPAGUNE BIHURTUTAKO ESPAZIO BIZIA

Duela ia 12 urte Kortezubik bere udal liburutegia zabaldu eba-netik, urtez urte erabiltzaile kopuruak gora egin dau. Udalak, her-ritar guztiek, baita txikienek be, eta, batez be, hemen lan egiten daben pertsonak partekatzen daben arrakasta. Euren kudeaketa ona funtsezkoa izan da udal gune hau kultur topagune bihur-tzeko, bertan katalogatutako 5,600 liburu eta DVD baino gehia-goiz gozatzeko aukera dagoela. 2010. urteaz geroztik, Kortezu-biko liburutegia Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen parte da. Honi esker, liburutegi parte-hartzaile guztien (286) fondoak kontsulta daitezke, eta liburutegien arteko maileguaren eskuli-buruaren bidez, sareko liburuak edo dokumentuak eskura dai-tekez. Zerbitzu horrek arrakasta handia izan dau pandemiaren azken hilabeteetan. Kortezubiko kultur jarduerak ludoteka bate-gaz eta, herritarrek hala eskatuta, aurrez hitzordua hartu beha-rreko ikasgela bategaz osatzen dira.



## MENDATAKO IDATZE ETXEAK TERRAZA ESTALIA IZANGO DAU

Mendatako Udalak espazio estali barri bat sortuko dau Eleixalde auzoko Idatze Etxea udal eraikinaren ondoan. Gune horrek herritarren topagune lez daukon erakargarritasuna indartuko dau, udalerriko bizitza soziokulturala sustatuko dau eta, aldi berean, turismoa bultzatzeko ekipamendua hobetuko dau. Mendatak kultur, gizarte, landa eta kirol jarduera asko antolatu dauz beti, guztiak ibilbide luze eta arrakastatsukoak. Mendatako nortasunaren eta landa-erakargarritasunaren parte dan dinamismo herrikoi, parte-hartzaile eta integratzaile honek, Kostaldeko Donejakue Bidearen parte izateagaz batera, turismo jasangarriaren esparruan kokatzen dabe. Liburutegia edo ludoteka bezalako udal-ekipamendu eta zerbitzu ezberdinak hartzen dauzen Idatze Etxean estalitako kanpoko eremu bat egokitzeko proiektuari esker, eraikin berean dagoen Artape Jatetxeko terraza, herriko taberna, handitu ahal izango da. Horrela, COVID 19-ak sortutako egoerara egokitu eta baldintza meteorologiko txarretan erabili ahal izango da terraza. Balio anitzeko gune bat dago honen ondoan, kanastak eta futbolerako ateakaz, eta oso hurbil frontoia, udaletxea eta San Migel Eleiza dagoz, 360º-ko paisaia ikusgarritz inguratuta.

## MUNDAKAK EDUKIONTZIEN SAREA BERRANTOLATU DAU, BIRZIKLAPEN ERAGINKORRAGOA LORTZEKO

Mundakako Udalak aurrera egin dau hiri-hondakinen kudeaketa jasangarriaren aldeko konpromisoan, bere lehentasunetako bat dan aldetik. Pertsona bakoitzari, herritar bakoitzari, dagokion erantzukizuna da, Mundakako bizi-kalidadearen alde eta planetaren mesedetan. Herritarrek energia aurrezteko, klima-alaketaren aurka borrokatzeko, lehengai gutxiago erabiltzeko eta ingurumena zaintzen laguntzeko konpromisoa har daiezan laguntzeko, Udalak birziklatze-sistema barri jasangarriagoa, funtzionalagoa eta praktikoagoa ezarriko dau. Helburua da hondakinak batzeko zerbitzu osoa, eroso eta hurbila eskaintzea, udalaren eskura dagoen erraztasun guztiak jarriz birziklatzea ekintza erraza eta ohikoa izan daiten. Hiri-hondakinak batzeko edukiontzien kokapen eta antolaketa barriak udalak egindako azterlan baten ondorio arrazoituen arabera erabaki da. Azterlan horretan aipatzen da egokia dala bilketa-gune osoak sortzea, estrategikoki kokatuta eta elkarrengandik distantzia maximo batera. Udalak funtsezkoak dira zerbitzu hau emoteko orduan; izan be, hiri-hondakinen kudeaketa eraginkorra funtsezkoa da birziklatzeko maila sozial optimoak lortzeko; hauxe da Mundakaren lan-ildoia







ELIKADURA-SEGURTASUNA  
INGURUMEN-OSASUNA  
MIKROBIOLOGIA BIOSANITARIOA

Gure zerbitzuak:  
LABORATEGIA  
FORMAKUNTZA ETA  
AHOLKULARITZA

Covid-19aren aurkako  
prebentzio planak



Pol.San Isidro II  
Idorsolo, 15- Dpto.3.2  
48.160 Derio (Bizkaia)  
944 566 589  
info@biotalde.com  
www.biotalde.com

Ezagutza, Teknologia, Zerbitzua



Bekoibarra, 25pab. 8-14 Edificio Sollube  
48300 Gernika-Lumo  
Tel.94 625 03 20 / Fax 94 625 68 71  
kooperatibasanisidrogernika@gmail.com

www.kooperatibasanisidrogernika.com



# Torrealday

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA

www.torrealday.es • 94 627 00 36

GOURMET  
URDAITEGIA

# PEPI

Pepi Urdaitegiak kalitatezko hestebeteak eta delicatessen produktu ugarieskaintzen dauz.

Gernikako plaza,7  
48300 Gernika-Lumo  
608 00 14 28

# Urdaibai

ORAIN 2.300 URTE  
HACE 2.300 ANOS

*arrolagune*

Zabalik/Abierto

DOMEKA GUZTIETAN  
EKAINAREN 30arte

TODOS LOS DOMINGOS  
HASTA EL 30 de JUNIO

ORDUTEGIA/ HORARIO  
10:00 - 14:00  
Loiola Auzoa 4,  
48383 Arratzu (Bizkaia)  
Tel.: 634 243 762  
arrolagune@visiturdaibai.com  
www.visiturdaibai.com

SARRERA DOAN  
ENTRADA GRATUITA

Visit Urdaibai Bizkaia

# EUSKAL SOUVENIRS

GERNIKA

Andra Mari kalea, z/g  
48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)  
94 625 19 30  
www.euskalsouvenirs.com

@euskalsouvenirs

# ARRIBALTZA

KAFETEGIA

# ARRIZA

KAFETEGIA

Barrenkalea, 6  
946 466 084

Artetikalea  
944 650 698

48300 Gernika-Lumo

# Jasangarritasunagaz bati!

Busturialdeko  
mankomunitatea

busturialdekomankomunitatea@bizkaia.org  
94 625 68 84 / 94 625 47 22



# Kurutzebideak

Busturialdea-Urdaibain denboraren joanari eutsi deutsoezen hainbat Kurutzebideren aztarnak, euskal herriaren erlijiotasunaren lekuko dira, eta, gaur egun, ibilbide turistiko erakargarriez gozatzeko aitzakia. Hauxe da Eako Kurutzebidearen kasua, garai batean prozesino eta erreguen pasabidea zana. Gaur egun zutik dirau, zati batean bakarrik, baina "Letanien bidea" ekarri dau. Beste adibide bat, Gernika-Lumoko Lumo auzo bitxirako bidean aurkituko dogu.

**E**rljio-turismoa fedea eta de-  
bozioagatik mugitzen da, eta  
gero eta gehiago erlijioak  
sortu dauen ondare garrantzitsua eza-  
gutzeagatik. Busturialdea-Urdaibain, Elei-  
zaz, Baselizaz eta Guruz-tokiz gain, beren  
historia eta garrantzi artistiko eta arkitek-  
tonikoagatik balioetsuak direnak, hainbat  
kurutzebide aurkitzen doguz, gehienak  
landa-eremuetan, paisaiak beretuak. Bi-  
degurutzez jositako bide hauek, oroko-  
rrean partzialki kontserbatuta, turismo  
aktibo, osasungarri eta espiritualaz goza-  
tzeko atxakia ona dira.

**Ea herri itsastarran** prozesioak eskualde-  
ko garrantzitsuenetakoak ziran eta bertan,  
XX. mendearen lehen herenean eraiki zan  
Kurutzebideko kurutze edo "une" batzuk  
kontserbatzen dira. Prozesinoa San Joan  
eleizan hasi, kofradiaren eraikin zaharre-  
ra joan eta Talako Ama ermitan amaitzen


zan. Hain garrantzi handikoa izan zan bere  
garaian kurutzebideak Ean garai barrie-  
tara egokitutako eta bidezidor formatuko  
"prozesino" barritua sortu zala. Izenak,  
bere jatorri erlijiosoa gogorarazten dau,  
"Letanien bidea" (Pr Bi 168). 3 km pasa-  
txoko ibilbideak, pekatuak garbitu beha-  
rrean, deskonektatzeko, lasaitzeko eta  
paisaiaz gozatzeko gonbita egiten dau.  
Kontserbatzen diran kurutzeek inskripzi-  
oak euskaraz daukeela ikusiko dozu, ez  
latinez. Zenbaki erromatarrek jatorrizko  
kolore gorria mantentzen dabe.


**Gernika-Lumon,** kurutzebideak Lumorai-  
no eramaten dau, lotura "historikoa". Gaur  
egun, Lumoko eleizatea foru hiribilduaren  
auzo bat da, baina 1366 arte kontrakoa  
zan, Gernika Lumoko auzo bat zan. Bidea,  
Santa Maria Eleizaren ondoan hasten da,  
bertan dago lehenengo kurutzea, Lumora  
igotzen dan bidetik. Kareharrizko kurutze-



Arratzuko kurutzebidea.



<sup>1</sup>TAU kurutzea 

<sup>2</sup>LATINA kurutzea 

<sup>3</sup>Kurutz HANKADUNA 

Lumoko San Pedro eliza,  
Gernika-Lumoko kurutzebideko azken etapa.

## URDAIBAICO paisaia

bide honen historia 1930ean hasten da, Santa Mariako parrokoa izandakoari egindako omenaldian, bertan eraikitzea erabaki zan. Garai hartako familia aberatsak arduratu ziran proiektuaz, haien izenak kurutzeetako euskarrietan aurkituko dozuz. Goranzko ibilbideak Gernika-Lumo gaineko bista zoragarriak eskaintzen dauz.

Gernika-Lumotik kilometro gutxira, **Arratzun**, Eleizaldeko Santo Tomas Eleiza monumentala dogu abiapuntu. Hemen aurkituko dozu bere kurutzebideko lehen kurutzea, 1940 inguruan eraikia. Ibilbidea hasi aurretik, lekuak oparitzen dabezen ikuspegiekaz gozatu. Arratzuko edertasuna, inguruko mendi eta muinoak meditatinoa egiteko aproposak dira. Kurutzebideak barruko bide bat jarraitzen dau, Eleizalde eta Loiola arteko errepide nagusiagaz paraleloan. Bide espiritual honek landa-paisaia zoragarri batean barnera-

tzen zaitu, energiak bete eta aurrera jarraitzera bultzatzen zaituzten zelai berdez bete. Kalbariora iristean hiru kurutzeak erdialdean kurutz hankadunak<sup>1</sup> daukeela ikusiko dozu.

Kalbarioak, hamabigarren uneari dagozkion hiru kurutzez osatuta dagozenak, normalean gune garai batean egoten dira. Jesus eta beragaz batera gurutziltzatuak izan ziran bi lapurrak adierazten dabe. Bere diseinua desbardina da eraikuntza garaiaren arabera. Hemen nabarmendu doguzen hiru kurutzebideetako kalbarioak XX.mendekoak dira, beraz, lauak dira, apaindura berezi barik eta kurutze latinoakaz<sup>2</sup> Kalbario zaharrenak erdiko kurutzea alboetakoa baino handiagoa eta bereziki apaindua izateagatik bereizten ziran. Muturretako gurutzeek tau<sup>3</sup> formakoak ziran. **UM**



Eako kurutzebidea.

**AINARA BASURKO***Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia  
sustapenerako diputatua**"Busturialdearen bokazioa eta konpromisoa da barrikuntza eta garapen ekonomiko aurreratuaren erreferente bihurtzea gune babestu batean"*

Eskualdeko lehiakortasunari eta enpresa-garapenari lotutako ibilbide profesional zabala du Ainara Basurko Urkiri ondarroarrak, eta inork ez bezala ezagutzen dau lekuan bertan lan egitea zer den. 14 urtez Lea Artibaiko Eskualde Garapenerako Agentziako gerentea izan zan, eskualdeko ekonomia-garapenean ardatzuta. Aldi berean, Azaro Fundazioaren zuzendaria izan zan, Lea Artibairen lehiakortasunari laguntzeko. Bizkaiko ekintzailatza eta lehiakortasuna bultzatzea be izan eban helburu BEAZeko zuzendari nagusia lez. Eta orain, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko diputatulez, Bizkaia lurralde barrizaillea, talentu erakargarri, konektatua eta orekatua izan daiten lan egiten dau, kalitatezko enplegua sortu eta mantentzeko gai dana.

**Zelan aldatu dau sailaren estrategia pairatzen ari garen pandemiak?**

Pandemiak guztiok, baita erakunde eta enpresak, testuinguru barrira egokitzea behartu gaitu. Ekonomia Sustatzeko Sailaren kasuan, helburua lurraldeko enpresen lehiakortasuna sustatzea da oraindik, baina osasun-krisiaren ondorioz bizi dogun egoera apartak bi lan-ildo planteatzera behartu gaitu. Alde batetik, premiazko neurriekaz, hala nola mikromaileguak, turismoaren eta merkataritzaren arloko eskaria sustatzeko bonuak, turismoaren sektorearentzako zuzeneko laguntzak eta, bestetik, gure ETEetan lehiakortasun-pailankak bultzatzeko neurriak.

**Bizkaiko Lurralde Historikoaren garapen orekatuaren mapan, zer eginkizun betetzen dau Busturialdeak?**

Bizkaia lehiakorra, barrizaillea, talentuduna eta orekatua lortzen lagundu gura dogu. Hau esaten dogunean, bi gauzak ari gara. Lehenengoa, ekonomia sustatzeko gure politikak eta programak Bizkaiko eskualde guztietako enpresa sarera irits daitazan lan egiten dogula. Bigarrena, eremu

bakoitzeko enpresa eta sektore sarearen berezitasunak ezagutu behar doguzela, eta gure jarduerak errealitate desbardinetara egokitu behar doguzela.

Zelan lortuko doguz helburu horreek? Tokiko eta eskualdeko garapen-eragileekaz lankidetzeta estuaren bidez. Busturialdean be halantxe egiten ari gara, ekonomia sustatzeko dagozan neurriek ahalik eta eragin handiena izan daiezan eta eskualdeak proposatutako enpresa-sarearen lehiakortasunean eragina daukeen trakzio-proiektuei laguntza emonez.

**Zeintzuk dira, zure ustez, Busturialdean eskualdearen bilakaerarako funtsezko balioak?**

Busturialdea natura-aberastasun ukaezina daukon eskualdea da, aintzat hartua eta ezaguna, eskualdeko hainbat errealidade ukatuezinekoen bidez, hala nola itsasoa, itsasadarra, mendiak edo basoak. Baita ikutuezineko "Urdaibaiko Biosfera Erreserba" izatearena be.

Ez hori bakarrik, Busturialdea bere aberastasun historiko eta kultural handiagatik nabarmentzen da, marka ezagunak

hartzen dauz bere baitan, besteak beste: Gernika – euskal tradizioa, bakea –, Bermeo – Atunaren Munduko Hiriburua –, Gaztelugatxe – Ikono turistikoa –, Mundaka –Surfaren gunea... Eta balio eta indargune horreekaz batera, Busturialdeak badaukoz trakzio-ahalmena duten enpresak eta sektoreak: Maier, atun- eta kontserba-sektoreko enpresak, eta egurraren lehen eta bigarren eraldaketako jarduerak eta enpresak. Eremuagaz lotura handia daukeen sektoreak eta enpresak dira, potentzial handia daukeen azpiegiturak, Bermeoko portua, esaterako, eta barrikuntzaren eta ezagutzaren euskal sareko eragileak be, Azti, adibidez.

Busturialdearen eskualde-nortasuna indartzeko eta eskualde osoaren garapen iraunkorra bultzatzeko borondate politiko eta instituzionala dago, ikuspegi estrategikoagaz eta erakundeen arteko lankidetzagaz eta lankidetzeta publiko-privatueguz. Eta ez dira berbak bakarrik, ildo hori lantzen ari da plan estrategikoen esparruan.

**Zer suposatzen dau Busturialdearen etorkizunerako eskualdeko udalerriak, Ea izan ezik, 19 udalerrri, hain zuzen be, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren parte izateak?**

Uste dot aukera handia dala, baina lan egin behar dogu aprobetxatzeko eta halakotzat har daiezan. Biosfera-erreserba jarduera ekonomikoak, oro har, eta industria-jarduerak, zehazki, erakartzeko etiketa negatiboa izan zeitekean garaiak atzean geratu dira.

Industria-jarduerak aldatu egin dira, iraunkortasuna goranzko balio bat da, eta Urdabai Biosfera Erreserbaren Patronatua erakusten ari da eskualdea bultzatzeko ahaleginak antolatzeo gaitasuna, baliabide naturalen kontserbazioa bateratzearen eta garapen ekonomiko eta sozial jasangarria lortzearen arteko oreka sustatuz.

Urdaibai balio bereziko espazioa da, harro egoteko modukoa Bizkaiarentzat eta Euskadirentzat, nazioarte mailako onenpegaz.

**Busturialdearen funtsa lehen sektorea izan da (nekazaritza, arrantza, basogintza). Txakolinaz eta kontserba industriaz haratago, etorkizuna duela uste dozu?**



Ainara Basurko, BFAko Ekonomia Sustapenerako diputatua.

Izan be, Busturialdean lehen sektoreak pisu handia izan dau eta dauko oraindik, industriagaz eta balio erantsi handiko zerbitzuekaz alderatuta.

Baina ahalmen eta aukera handiak daukozen eskualdea da, eta Aldundiaren babesa eta laguntzagaz garatzen ari dan bide-orri edo eskualdeko plan estrategiko horretatik sakondu egingo da. Eta hori guztia garapen ekonomiko endogenoa bultzatzeko helburueguz, beste eskualde batzuekaz eta beste garapen-eragile batzuekaz lankidetzan jarduera ekonomikoa sortzeko gai izango dana, lehendik dagozen enpresen inguruan industriak eta teknologiak rol garrantzitsua izan daiezan, sektore ezberdinen alde eginez, hala nola, arrantza eta elikadurarena, egurraren eraldaketarena – barrikuntza eta balio erantsiko jarduera barriak bultzatuz, bioekonomia- , turismoa...eta hori guztia

jasangarritasunaren ikuspegitik.

Busturialdearen bokazioa eta konpromisoa da barrikuntza eta garapen ekonomiko aurreratuaren erreferente bihurtzea

*Busturialdearen eskualde-nortasuna indartzeko eta eskualde osoaren garapen iraunkorra bultzatzeko borondate politiko eta instituzionala dago.*

## Diagnostiko estrategiko bera eta lurraldearen lehiakortasunaren ikuspegi bera partekatzea oso urrats garrantzitsua da.

gune babestu batean, Biosferaren Erreserba batean, garapen ekonomikoaren eta naturaren eta biodibertsitatearen kontserbazioaren arteko bateraezintasunaren irudia hautsiz.

**Eskualdean egurraren eraldaketagaz lotutako bi enpresa garrantzitsu dagoz. Egurraren industria bertoko ekonomia-  
ren bultzatzaile izan daitekeela uste dozu, Busturialderako garapen-euskarri?**

Eremu horretan potentzialtasun interesgarriak dagoz, bai Busturialdean bai Bizkaiko beste eskualde batzuetan be egurraren lehen eta bigarren eraldaketan eta eraikuntzan dagozen jardueretatik abiatuta.

Behar beste elementu dagoz eta bidea dago egiteko. Baso-kudeaketa profesionalizatu behar da, egurraren lehen eraldaketaren lehiakortasuna sustatu behar da, eta, lankidetzaren ikuspegi ireki batekin, egurraren aplikazio-eremu barriak esploratzeko lan egin behar da, eraikuntzatik gertu dagozen jarduera barrizailleak, eta, zergatik ez, egurraren eraldaketaren eta eskualdean modu lehiakorrean egin daitekezen jardueren garapenaren inguruko barrikuntza-posizionamendu interesgarria lortu behar da eskualdean.

**Eskualdean bi Elkartegi dagoz, Arratzun eta Gernika-Lumon. Ba al dauko BFAk estrategiarik bere jarduera sustatzeko eta eskualdean aberastasuna sortzen daben enpresak erakartzeko?**

BFAk Bizkaiko lurralde osoan dagozen enpresak hazten eta garatzen lagunt-



Ainara Basurko, BFAko Ekonomia Sustapenerako diputatua Gernika-Lumoko Batzaretxean.

zeko jarduera jarraitua garatzen dau, eta, aldi berean, jarduera bizia garatzen dau kanpoko enpresa barriak erakartzeko. Horretarako, lurralde osoaren elementu bereizgarriak balioesteaz gain, enpresa sustatzaileekaz eta eskualdeko eragileekaz batera lan egiten dogu, lurraldearen eta eskualdeen erakarpen-potentzial osoa balioesteko gai izan gaitezcan.

Alde horretatik, azpimarratu gura dot eskualdeko eragileek zeregin estrategikoa daukeela eskualde bakoitzaren errealitatea zehatz-mehatz ezagutzeko eta enpresa-sarearekiko etengabeko elkarreaginean. Eskualdeen ahotsa dira, eta eskualdez gaindiko politikak eta jarduerak Bizkaiko puntu guztietara iristeko biderik eraginkorrena. Elkarrekintza zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango da eragina.

**Erakundeen arteko lankidetzak faktore garrantzitsua da proiektuek aurrera egin daiezan. Zein neurritan islatzen da gure eskualdean?**

Eskualdearen ikuspuntutik, aurrerapausu

garrantzitsuak emoten ari direla uste dot. Diagnostiko estrategiko bera eta lurraldearen lehiakortasunaren ikuspegi bera partekatzea oso urrats garrantzitsua da. Sustapen ekonomikoaren esparruan gobernantza-eredu eraginkorrago bat barrikusteko eta barriz definitzeko unea da. BFA eskualdeko hausnarketa estrategikoan laguntzen ari da, eta erronka horretan be laguntzeko prest gagoz

**Ekoizpen-enpresen izaera sustatzailearen aurrean, zer eginkizun izan behar dau turismoak Busturialdeko garapen ekonomikoan**

Turismoa gaur egun eskualdeko garapen ekonomikorako funtsezko jarduera da, aberastasuna eta enplegua sortzen dauen jarduera.

Busturialdea-Urdaibaik Turismo Jasangarriaren erreferentziatzeko helmuga izateko bidean dago, eta ildo horretan ari da lanean. Urdaibaiko Biosfera Erreserba izan-go da turismo-helmuga jasangarri gisa egiaztatzen dan Euskadiko lehen gune babestua, eta horrek lan kolektiboa eskat-



## *Busturialdea- Urdaibaik Turismo Jasangarriaren erreferentziatzko helmuga izateko bidean dago, eta ildo horretan ari da lanean.*

zen dau helburu hauen inguruan: Urdaibai kalidatezko esperientziak eskaintzen dabizen helmuga gisa indartzea eta hobetzea, Biosfera-erreserbari buruzko informazioa eskualdeko biztanleei komunikatzea eta zabaltzea turismo jasangarriagaz eta tokiko ekonomiagaz inplikazioa eta lotura bideratzeko, eta kalidatezko produktu turistikoak identifikatzea eta finkatzea, tokiko produktuetan eta turismoa urtaroei hain lotuta ez egotean oinarritutako hazkuntza dibertsifikatua ahalbidetuz, besteak beste.

**Etokizunaz berba egiten danean, barrikuntza berba agertzen da. Busturialdearen kasuan, zer barrikuntza-motaz ari gara? Zuntz optikoa lurraldeko txoko guztietara helarazteko Foru Aldundia-  
ren proiektuak, gure eskualdean enpresa-bultzada emongo dauela uste dozu? Zer zentzutan?**

Ekonomia Sustatzeko Sailean enpresa-sarearen barrikuntzan jartzen dogu arreta, erreferentziatzko merkatu eta sektoreetan lehiakortasuna mantentzeko eta sendo-

tzeko palanka estrategiko lez. Barrikuntza teknologikoaz zein ez-teknologikoaz ari gara. Halaber, lehiakortasuna bultzatzeko proiektu horreek garatzeko oinarritzko baldintzetan eragitea dagokigu. Ildo horretan, zuntz optikoa Bizkaiko txoko guztietara iritsiko dala bermatzea funtsezkoa da, eta, horren aurrean, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila proiektu bat zuzentzen ari da, datozen urteetan zuntz optikoa lurraldeko puntu sakabanatu guztietara eramatea ahalbidetuko dauena.

**Barrikuntza kontzeptuak lotura estua dauko prestakuntzagaz. Geure eskualdean, herritarren kualifikazio-maila handia da. Zer gertatzen da gure inguruan Busturialdetik kanpo bizitza profesionala eraikitzen amaitzen duten ongi prestatutako belaunaldi gazteak bertan ez lotzeko?**

Kualifikazio-maila ona dauken pertsonen aukera gehiago dauke beren etorkizun profesionala aukeratzeko orduan, beren bizi-proiektu pertsonalean zuzenean eragiten dauena. Hori ona izanik, bistakoa

da eskualdeak eta udalerriak elkarren artean lehiatzen direla pertsonak bertan eusteko eta erakartzeko. Horren aurrean, beharrezkoa da proiektu integral bat izatea, eskualde bakoitzean jardura ekonomikoaren aldeko apustuagaz lotuta, baina baita gizarte- eta zerbitzu-osagai garrantzitsuagaz be.

Beraz, faktore askok eragin daikenez pertsonen erabakian, baina argi dago eskualdean enpresa-jardura lehiakorrak eta ekintzailatza babesteko ekosistema izatea atxikipen horren aldeko faktoreak direla.

**Goi-mailako Lanbide-heziketako Zentro bat izateak, zure ustez, erakar leikez gazteak eta ekiteko adinean dagozenak, Gernika-Lumon jardura ekonomikoa eta enplegua dinamizatuz?**

Lanbide-heziketako zentroak dira eskualde bakoitzeko enpresa-sarea dinamizatzeke eragile estrategikoak eta eskualdearen apustu diran sektore estrategikoekaz bat etortzea garrantzitsua da. Kasu askotan, konfiantzazko eragileak dira enpresentzat, lehiakortasuna hobetzeko erronkei aurre egiteko, eta ez soilik prestatuntzaren arloan. Eskualdeko indargune garrantzitsua da eremu bakoitzeko enpresa-sareagaz eta bere erronkekaz inplikaturako lanbide-heziketako zentro bat edukitzea, pertsonak trebatuz, ekintzailatza bultzatuz eta enpresei balio erantsiko zerbitzuak eskainiz. **UM**



# NABARNIZEKO ANDAIZARA

beste mundura  
joateko  
janztea

Euskal hileta-tradizioak heriotzagaz lotutako kultura oso bat sortu dau. Garai batzuetan gorpuak errausten ziran, beste batzuetan hilibiratzen ziran, edo monumentu megalitikoetan zein edo katakonbatan lurperatzen ziran, hirietatik kanpoko nekropolietan, gero hirien barruan... Gure arbasoek utzitako erritoak eta sinesmenak. Hilkutzak iritsi ziran arte, 1930eko hamarkadan, ekitaldi ezberdin batzuk osatzen eben hileta errituak: hildakoa jantzi, gaubelea eta hildakoa eraman. Difuntua janztea edo "meztidu", hildakoa garbitzea eta janztea zan, senide eta bizilagunen aurrean aurkezteko eta baita beste mundura joateko be. Erritu honetan, ezinbestekoa zan andaizara bat jartzea kanpoko estalki lez. Eta erritualean ezinbestekoa zan izara honen adibide bezala Nabarnizko Andaizara dogu.

*Iturria eta argazkiak: Euskal Museoa / Nabarnizko Andaizara (Orratz-lanak 1). Bilbo: EAEKM - MAEHV; 1998*



*Berezitasunetako bat bere seigarren greka da, bere gaiagatik ederra eta ikusgarria: lau itsasontzien irudia da, hil-oihala egin zutenentzako eguneroko paisaia bat islatzearen emaitza izan daitekezenak, Gernikako edota Lekeitioko itsasadarra honen kasu.*

## Nabarnizeko andaizararen zehetasunak

- Ehun angeluzuzen luzanga da: 256 zm-ko luzera eta 12 zm-ko zabaleragaz.
- Linu gordinezkoa, irutea eskuz egin dago eta ehundura be artisautzazkoa da.
- 9 greka daukoz hari berde, urdin, arre eta urre kolorekoen bordatuta. Zenbatutako puntudun bordatua.
- Seigarren grekan lau itsasontzi agertzen dira, pieza bakoitzean bat. Trazatu orokorra arre koloreko hariz dago egin, eskumako muturrean dagoen pieza izan ezik. Eskumako horretan urre koloreko haria erabili da. Hari berdeak eta urdinak txandaka erabiltzen dira itsasontzien zatirik berezienak zehazteko.
- Analisisien arabera andaizara 1.465 eta 1.565 artekoa da.



**H**il-oihalak, hildakoen gorputzean jartzen ziran oihalak ziran, izara moduko bat, "andaizarak". Nabarnizko andaizara, Bilboko Euskal Museoak kontu handiz gordetzen dauen pieza paregabea da, XV. mendekoa da eta linozkoa da, fina eta oso ondo eginda. Hariaren kalitateagatik nabarmentzen da, baita erabilitako kolore-aberastasunagatik eta erabilitako ikonografiagatik be. Izan be, irudietan motibo geometrikoak (ohikoak ehunezko euskal ostilamenduan) irudi figuratibo batez konbinatzen dira. Motibo figuratibo horretan Euskal Herriko eta Kantabriako XVI. mendeko itsasontziak agertzen dira. Hau guztiagatik, Nabarnizko andaizara apartekoa da, bakarra eta eskusiboa.

Hil-oihal honek Nabarniz izena hartu dau eta antza danez, Urdaibaiko herri honetan egin zan. "Andaizara" honen berezitasunetako bat bere seigarren greka da, bere gaiagatik ederra eta ikusgarria: lau itsasontzien irudia da, hil-oihala egin zutenentzako eguneroko paisaia bat islatzearen emaitza izan daitekezenak, Gernikako edota Lekeitioko itsasadarra honen kasu. Andaizararen marrazki hauen zergatiaren interpretazio ezbardinak dagoz: lehena, generikoa, heriotza igarobide edo bidaia

bezala. Eta bigarren interpretazio bat, hil-oihalaren jabeek itsasoagaz harremana izango leukiena. Baleiteke be andaizara ez izatea etxe jakin batena, baizik eta itsasoan bizia emon ebeneen ehorzketetarako erabili eban parrokia edo ermitarena

Emakume batzuek, beren ezkonsarian, ehunezko ostilamendua bezala eramaten ebeen hil-oihalak, eta izara hauek aberatsenak eta landuenak ziran, komunitatearen barnean erritu hauen garrantziaren arabera eta "status" ikur bezala. Heriotzak presentzia publiko handia eukan. Hilobiratze lekura eramán aurretik hildakoari meztidu (jantz) egiten jakon. Ohikoena, hildakoak begi bistan garraiatzea zan, anda batzuen gainean (ohatila moduko bat), andariñeek (lau gizonen) elizaraino garraiatzen ebeena, horretarako erabiltzen ziran "andabide" edo "hilbideen" bidez.

Bilboko Euskal Museoak, behar bezala kontserbatzeko, jatorrizko andaizara gordetzen dau bere instalazioetan, baina badago kopia bat Museoko erakusketa iraunkorrean ikus daitekeena, "Itsasoa" aretoan, heriotzari eskainitako bitrinaran. **UM**




Teodoro Anasagasti Algán Bermeon jaio zan 1880. urtean. Arkitektoa zan eta bere kezka artistikoa eta adorea zirala eta, marrazkilari, irakasle, bidaiari eta idazle bez bez nabarmendu zan. Bere jaioterria utzi eban, 16 urte besterik ez zeuzkala, Madriler joateko arkitektura ikastera. Urdaibain be arrastoa utzi eban karrera luze baten hasiera izan zan. Bermeoko Udalak herriko kale bati jarri eutson bere izena aitorten gisa.

**B**ermeoko arkitektura, bere jaioterria, bere arkitekturarako bokazioaren pizgarri izan zan. Bermeokoak ziran José Felix de Anasagasti y Nardiz, merkataritzako itsas armadako kapitaina, eta María Luisa Algán Goyenechearen semea izan zan. Teodoro Anasagasti, 16 urte gaz, Madriler joan zan arkitektura ikasten, eta baita, beste bermeotar ospetsu baten bitartez, Benito Barrueta margolaria, hain zuzen be, pintura-tailerretara joateko. Arkitektura eta pinturaren arteko konbinazioak bere lana markatu eban eta bere proiektuei originaltasuna emon eutsozan.

Ikasketak amaituta, Bermeora bueltatu zan, eta 1907an udal-arkitekto izendatu eben. Santa Klara eta Francisco Ucelay

# Teodoro Anasagasti

BERMEOKO UDAL ARKITEKTOA  
IZATETIK **MODERNISMOAREN**  
**ERREFERENTEA IZATERA**



Erezuma panteoia Mundakan, Teodoro Anasagastiren lana.

Anasagasti tar Teodoro  
kalea, Bermeon.



kaleetako etxebizitzak, Torronteroko harmailadiko etxebizitzaren beheko solairurako soluzinoa, Ercilla kaleko Marcelina Hormazaren etxebizitza, San Jose Ikastetxea, Bermeoko Santa Maria elizaren eraberritzea, parrokia-aretoa eraikitzea edo Erezuma panteoiaren enkargua (Mundaka) dira garai horretako proiektuetako batzuk.

Bere adoreak Erromako San Fernando Arte Ederretako Akademiako plaza batera aurkeztera eraman eban, erraz lortu eban. Garai honetan Europa osoan zehar bidaiatu eban adierazpen artistiko, historiko eta garaikide barriak ezagutzeko, arkitektura-aldizkarietako barriemotile lez lan egin eban eta nazioko eta nazioarteko lehiaketa eta erakusketa askotan parte hartu eban. Guztietan lortu eban onespes publiko handi bat, honen kasu Arte Ederren Erakusketa Nazionalen Urrezko Domina, Kanposantu Bikainaren (Cementerio Ideal, 1910) proiektuagatik.

1914an Bermeora bueltatu zuen, baina bere egonaldiak urtebete baino ez eban iraun. Bere karrera profesionala hazten hasi zuen, eta Madrilera joan zuen, berta guztiz ospetsua zuen eta arlo profesional, artistiko eta akademikoan. Hiriburuan Maria Dolores López-Sallaberrygaz ezkondu zuen, eta Madrilgo burgesia monarkikoan sartu zuen. Horrek jauzi handia ekarri eban bere karrera pertsonalean, eta halako aldaketa maila profesionalen be. Bere aitaginarreba, botere handiko arkitektoa zuen, baina bere postuladuetatik urrun egoan estilokoa, eta, beraz, Sallaberryren estudiotik sinatu ebazan proiektuak, bere idealetatik urruntzen ziran.

### ZINEMA ETA ANTZOKIETAKO ARKITEKTOA

Hogeiko hamarkadan jarduera arkitektoniko bizia hasi zuen berentzat. Teodoro Anasagasti bereziki ezaguna da ikuskizunaren munduan egindako lanengatik: zinemak, antzokiak eta dantzalekuak. Bere lanak Real Cinema, Monumental Cinema, egungo Teatro Monumental, Teatro Fuenarral edo Madril-Paris saltoki handiak dira. Madrilen hormigoi armatuaren tekni-

ka sartu eta irakatsi eban, zinema eta antzokietan zutabe gutxigaz argi handiak esaltzeko erabili eban. Erroman egin eban egonaldian Espainian ingeniari-tza-erakuntzetarako gordeta egoan material hau aztertu eban. Mugimendu Modernoaren postuladuen etorrera erraztu eban, eta Monumentala izan zuen bere adierazgarri handiena.

Bere ospeak gora egin eban, ez bakarrik arkitekto lez, baita beste alderdi batzuetan be, hizlari, idazle, arkitekturako aldizkari garrantzitsuen zuzendaritzan, eta arkitekturako irakasle lez. Irakasle lez aktiboki lan egin eban ikasketa hobetzeko eta ikasketak planak eguneratzeko. Arte Ederretako akademikoa eta gizarteagaz konprometitutako gizona be izan zuen. Gerra zibila hasi zanean, bombardaketek suntsitutako lekuak bisitatu egin eban, babesteko eta berreraikitzeko. Marrazteko orduan eukan erraztasunak gerrako hondamendiak kritikatzeko lagundu eutsen. Marrazkiaren domeinu honek, bere bidaiekaz lotutako lan grafiko garrantzitsu eta ugaria utzi dau.

Teodoro Anasagasti Madrilan hil zuen 1938ko abuztuaren 21ean. Bere arkitektura poetiko eta futuristarekiko bere hastapen profesionaletako mirespenetik, ahaztuta geratzera pasa zuen, 70eko hamarkadan korronte barri batek bere memoria berreskuratu eban arte. Bere ikasle askok lagundu eban horretan.

Mendiluzeko hilerria handitzeko lanak (Bermeo, 1917), Arroategi hilobi monumentua, Busturia (1920), Urduñako Antiguako santutegian Ama Birjinarentzako ganbaratxo (1922) eta Irungo Anaka eta Lapize auzoetako bi lorategi-hiriak (1929) dira Euskadin Anasagastik egindako proiektuetako batzuk. Nabarmentzekoa da, baita be, Rodriguez Acosta Fundazioaren eraikinean parte hartu izana (1928), Granadan, Alhambra ondoan. Mende hasierako arkitekturaren adibide ederra, modernoaren aldeko apustua eta Teodoro Anasagastiren ideal arkitektonikoen adierazpena. **UM**

# Bildotsa, UDABARRI BETEA!

"Ardi txikia, beti bildots" edo "Enero y febrero preparan el buen cordero" bezalako esaera zaharrei ez jake arrazoirik falta. Esne bildotsaren kultura ondo frogatuta dago geure memoria gastronomikoan, udabarriko sukaldaritzaren erreferentzia baita, eta tradizioa eta barrikuntza uztartzen jakin dau, lehen mailako elikagai-estatusa mantenduz, bere zapore leun eta atseginagatik, kalidadeagatik eta balio nutritibo handiagatik.

## Ba al zenekien...?

- Erromatarrak izan ziren bildots artaldeentzako legeak egiten lehenak. Hauek ereindako lurak inbaditzea eta fruituak jatea debekatu eben. Haiek izan ziren ardiak markatzeko ideia izan ebeenak.
- Ardiak dira mantsututako espezierik zaharrena munduan.
- Ardien begiak oso bitxiak dira, begi-niniak angeluzuzenak dira. Helduaroan lau urdail daukoz.
- Ardiak artaldean bizi dira, beren banakako biziraupena ziurtatzeko. Arrisku baten mehatxuaren aurrean, taldearen erdian babesten dira.

**B**ildotsa urte osoan aurkitu ahal dogu merkatuan, baina udabarria da bere unerik onena. Askoren ustez, etorkizuneko haragia dan hau gure gastronomia tradizionalako jakirik gozoenetako bat da, eta okela samur eta mamitsua da bere ezaugarri nagusia. Ez da ahaztu behar bere ahalmen elikagarri handia: proteina, zink eta B taldeko bitaminen iturria da, batez be niazina, rivo flavina eta B12.

Tradizioari begira, "San Jose" egunean bildotsa jatea oraindik errotuta dago Euskadiko toki batzuetan, baina maiatza da bere hilerik garrantzitsuena. Jakintsuen arabera sasoi honetan gantz gutxiago eta zapore gozoagoa dauko. Aspaldiko ustea da bildotsik gozoena bi ardiren esneagaz hazitakoa dala. Datu hau baieztatu barik be, elikadurak, hazkuntzak eta adinak eragin zuzena dauke haren zaporean eta gainerako ezaugarri organoleptikoetan. Aldagai hoiek ondo bereiztuta dagoz bildotsak izendatzeko moduetan, eta guztiak ezin hobeak dira sukaldaritzako jaki gisa aukatzerakoan arrakasta izateko. *Esne bildotsa*, sukaldean bereziki preziatua, 30-45 eguneko da, amaren esneagaz soilik elikatutakoa. 8 kg bizirik. *Arkumea* 4 hilabete baino gutxiago daukoz, bere pisua bizirik 13 kg ingurukoa da, eta, zenbait tokitan, Ternasco (Aragoi) bezala be ezagutzen da.



*Pazko-bildotsa* 4 hilabetetik gorakoa da, baina ez da urtebetera iristen, bere pisu sakrifkatua 23-26 kg-koa da eta bere zaporea bereziki sendoa da.

## "EUSKAL ESNE BILDOTSA"

Euskadin esne bildotsa da gehien kontsumitzen dana. "Euskal Esne Bildotsa-Cordero lechal del País Vasco" kalidadeko Eusko Labela dauko honek. Hemen jaio eta hazi behar dabe. Gainera, aire zabalean hazi behar dira, beti egin dan bezala, estres barik, eta sakrifikatu (21-35 egun artean) eta zatitu egin behar dira Euskal Autonomia Erkidegoan. Eusko Labela daukon benetako esne bildotsa Euskal Herriko "Latxa" eta "Carranzana" arrazakoa da. Bildots hauek ama-esne naturalagaz soilik elikatu behar dira. Euskadin Euskal Esne Bildotsa aurki daikegu gure harategi tradizionalan eta baita banaketa handiko dendetan be. Guztira 232 ustiategi dagoz erregistratuta Euskal Esne Bildotsaren barruan, eta hoietatik 14 Bizkaian dagoz. *"Euskal Esne Bildotsaren kanpaina urriaren amaieran hasi eta maiatzaren amaieran bukatzen da. Hutsean ontziratutako despiezei esker, produktuaren balio-bizitza luza daiteke. Formatu barriak lantzen ari dira, urte osoan bildots-okela kontsumitu ahal izateko eta, horrela, bezeroa hornitu ahal izateko bildotsik ez dagoen sasoi-*



tan. Baita ekoizpen handia dagoenean sakrifikatzen diran eta merkatuak hartu ezin dauezen bildotsei irteera ona emoteko. Merkatuan Euskal Esne Bildotsagaz egindako aurrez erretako bildotsa aurki daiteke eta izoztutako bildotsan be lanean ari dira, azaldu dabe Hazi Fundaziokoek.

#### BETIKO PRODUKTUAK, BARRIAK BEZALA

Euskal Esne Bildotsa zigitupean pieza osoak aurki daitezke, lau Eusko Label etiketaz, eta "aurrealdeko laurdenak, atzealdeko laurdenak, bildots-izterra, besoa, txuleta eta saiheskiak dagoz despiezetan. Guztiak hutsean ontziratuta eta Eusko Label identifikazio-etiketaz".

Ohiko piezen aurrean, sukaldariak gero eta gehiago animatzen dira produktu barriak lantzeraz, sukaldaritzaren barrikuntzan oinarrituta. Merkatuan aurki daitekeguen laugarren eta bosgarren gamako produktuen azken barritasunen artean, entrekoteko erreketak erraza edo picaña/bildots "tapi-lla" dagoz, edo, bestela, erretiluan, xerrak, hanburgesak eta txurraskatxoak bezalako mozketa barriak. Argi dago XXI. mendeko kontsumitzaileei aldi berean barrikuntza, tradizioa eta iraunkortasuna helarazteko gai dan sektorea dala.



Bildotsa erosteko orduan, garrantzitsua da haren ezaugarri organoleptikoak kontuan hartzea, eta usain atsegina izatea, haragiaren tonalitatea arrosa izatea eta gantz-geruza zuri aberatsa ez galtzea.

Erreketa ona lortzeko, egosteko denbora eta tenperatura ondo kontrolatu behar dira, hasieran altua izan behar da eta erreketaren amaieran murriztu, barrutik ondo egiteko.

#### BILDOSKIA, ZAPORETSUA ETA OSASUNGARRIA

Bildotsa, txerriagaz batera, koipe gehien duen animalietako bat da, % 6,6 gutxi gorabehera. Txuletak eta saihetsetako gantza erraz ken daiteke. Gure osasunaren gaineko onurei dagokienez, bildotsak muskuluak kontserbatzen eta haurren hezurak garatzen laguntzen daben proteinak emoten dauz. Nekea gutxitzen dauen B3 bitamina edo niazinan aberatsa da, eta immunitate-sistamarako eta globulu gorrien eraketarako onak diren B6 eta B12 bitamina be bai. Bildotsak potasioa, fosforoa, zinka eta selenioa be emoten deuskuz.

Bildotsa kontsumitzea osasungarria, goxoa eta jasangarria da. Abeltzaintzako sektore honek gure landa-ingurunea bizirik eta aktibo mantentzen dauelako. **UM**

## ERREZETA

# Bildots errea

### OSAGAIK

- Bildots erdia edo laurdena
- 1 berakatz-buru
- Oliba olio / gantz
- Gatza

Bildots erdia edo laurdena garbitu, gantza bota eta berakatzak apur bat emon, eta oso gantz gutxigaz erretzen hasten da, labean kazolan, edo, hobeto, ondo estalitako kazola handian. Astiro-astiro egin daitela, bueltak emonez; ordu eta erdiz egina egongo da. Sua biziagotu azken orduan txigortzeko. Labean lehenago egiten da, baina normalean hezurra haragiari itsatsita ateratzen da. Patata prijituekaz eta letxugagaz zerbizatzen da, eta baita patata-pureagaz eta "karmineko arrosatxoekaz edo pure txigortuagaz apainduta be. Gura izanez gero patatagaz batera egin ahal da, patata txiki barriekaz, bildotsa erdizka eginda dagoenean sartu; oso gozoak dira.

*"Karmineko arrosatxoak: Patata-pureagaz egiten dira eta baita errefauekaz be, muturra moztzen jake hauei, eta gero hosto bana ateratzen jake alde banatan, aurrekoaren ertza aldi berean moztuz, eta horrela lau hosto handi eta lau txiki ateratzen dira.*

**"El Amparo"  
(Bilbao, 1952)**

**Aholkua bildotza berakatzagaz igurtzea gomendatzen da.**  
On egin!



# Gitxi estimatuak, osasuntsuak eta guragarriak

Menderatzea gatxa da. Gure berezko landarediaren parte dira bide, landa eta mendietan. Ez dira oso desiratuak, beren hazkunde inbaditzaileagatik, igarotzea zailteagatik edota beren arantza zorrotzengatik, baina sendabelarrak be badira, animalia basati txikien babesleku dira, eta uda amaieratan, euren fruitu basatien gozotasunaz gozaten dogu. Errosazeoen familiakoak dira, bere izen zientifikoa *Rubus fruticosus* da eta sasi izenez ezagutzen doguz.



Goian masustak. Behean sasiak Urdaibain.



# SASIAK

**S**asia, oro har, planetako leku askotan hazten dan zartaka da, eta Busturialdea-Urdai-bai da leku hoietako bat. Gure klima heze eta epelaren ondorioz, gure landak eta mendiak habitat ezin hobea dira beren hazkunde inbaditzaileerako. Gainera, paisaiaren kudeaketak behera egin dau, lehen sektoreak atzera egin baitu bizimodu hiritarrago baten alde. Hori dala eta, garai bateko ortuak, mendiak eta igarobideak leku zeharkaezinak bihurtu dira batzuetan sasien eraginez. Xirmendu-antzeko adarrak, luzeak, gurutzatuak eta arantzatsuak daukoz. Gainera, lurra ikutu bezain laster sustriak sortzen dauz, hormetatik igotzen da erraz eta aurkitzen dauen landaredia asfixiau egiten dau. Sasi trinko eta nahastuek, espazio handiak kolonizatzen dabez, bere hazkundera kontrolatzen ez bada.

Sasiaren fruitua, masusta, errosazeoen familiakoa da, eta familia berekoak dira beste fruitu guragarri batzuk be (sagarra, madaria, gereziak, albarikokea, mailukia, almendra...) eta landare apaingarri batzuk be, hala nola arrosa. Ale txiki baltz eta mamitsuz osatutako mordo egitura du, helduak diranean, zurtoin batera finkatuta dagoz eta bakoitza hazi bat da.

## MUGA NATURALAK

Beti egon dira sasiak Urdaibain, muga natural lez erabili dira bideak eta lurra mugatzeko, eta hesietan modu kontrolatua, funtsezko betekizun ekologikoagaz. Nekazaritza- eta abeltzaintza-eremuetan animalien dibersidadea babesten laguntzen dabe. Zurtoin arantzatsuak daukeenez, sastrakak habia egiteko eta saizulo lez egokiak dira. Kirikolatzek, untxiek eta beste marraskari batzuk, babesa aurkitzen dabe sasietan, harrapariengandik babesteko. Gainera, basa flora eta faunaren erreserba genetikoa dira, hegazti migratzaileei babesa eta janaria bermatuz.

## SENDABELAR ETA BESTE ERABILERA BATZUK

Jatorriz Europakoa, Afrikako iparraldekoa eta Asiako mendebaldekoa da, baina munduko beste leku batzuetan be sartu eta bertakotu da, Australian eta Amerikan kasu. Sasia maiatzean loratzen da, eta fruituak udan ontzen dira. Urdaibaiko landa-eremu askotan, familian, hurrekaz, fruitu honeek batzea gero dastatzeko, jarduera dibertigarria eta ohikoa da, baina batzuetan ez da batera erraza izaten, arantza ugari daukezelako. Basoko masustez gozatzegatik ordaindu behar dan prezioa da, bere zapore gozoa da, aldi berean garratz samarra eta ñabarduraz bete, erositako masustekaz zerikusirik ez

dauena. Zapore biziko eta bitaminez betetako "mokau baltza".

Sasia, jada, sendabelar bezala preziatua zan Antxinaroko mediku eta farmakologo handien artean. Horretarako, hostoak, fruituak eta kimu samurrak erabili daitezke. Bere bertuterik garrantzitsuena lehortzaile izatea da, dituen taninoengatik. Udaberrian batzen diran kimu samurrak, lehortu, egosi eta infusioan hartuta, gargarak egitean edo kataplasmetan emonda, berezko erremedioa dira beherakotarako, kolitiserako, gastroenteritiserako, hemorroideetarako, eztarriko hanturen tarako eta ahoko gaixotasunak tratatzeko. Larruazaleko zauriak eta ultzerak sendatzeko, birrindutako sasi-hostoak kataplasman erabil daiteke. Masusten zukua be apur bat lehortzailea be bada azukredun jarabea eta uregaz batera hartu ezkerro sukarra arintzeko ona da.

Sasien zurtoinak saskigintzarako erabiltzea, beharbada, ez da hain ezaguna izan gure artean. Saskiak josteko erabili dira sasi zurtoinen azalak. Sokak egiteko erabilgarriak dira: oraindik adarkatu ez diran adar luzeak erabiltzen dira (lehen urtekoak), pintxoak eta hostoak kentzen dira eta luzetara 4 zatitan irekitzen da. Azala banandu eta txirikordau egiten da, soka erresistenteagoa lortzeko. **UM**

*Ezagutu Gautegiz Arteaga  
pausoz pauso*



# BALTSEOA

*lotsagarria izatetik  
ahaztezina  
izatera*


Atzean geratzen dira berbenek, erromeriek eta txitxarri-loek herriko plazetan gazteak batzen ebezan urteak. Gaur egun, adin jakin bateko pertsonak nostalgiak gogoratzen dabez "dantza eskatzeko" unea ilusioz eta urduritasunez itxarote eben garaiak. Baltseoa oso eza-guna zan garai haietan, baina ez da beti horrela izan.

**Z** antarra, lizunkoia, atzerrikoa... horrela ikusia egoen baltseoa garai batean, debekatu be egin zala. Dantza mota honen historia, dantza solteagaz kontrajarrita dago, askok, ez hain lotsabakotzat, dezenteagoa eta bertokotzat jotzen ebeena.

Izan be, geure ohiturek eta folkloreak benetako liskar moral, sozial eta politikoak eragin dabez. Zenbat eta atzerago joan, orduan eta handiagoa da dantzarekiko tentsioa. XVII. mendean, Pierre Lancre inkisidore krudel eta sorgin ehiztari beldur-garriak euskal dantzak satanizatzen ebezan Frantziako gorteko dantza "dezenteen" aurrean. XVIII. mendean, dantzei buruzko debekuak nagusi ziran, bai Elizaren aldetik, bai botere politikoaren aldetik, eta, jakina, baltseoa okerrago ikusita egoan eta zigortuta askotan. Garai horretan euskal dantza gero eta jarraitzaile gehiago irabazten joan zan kanpotik etorritakoen aurrean, kontradantza eta balsa kasu.

XIX. mendean, balsa, polka edo habanera bezalako bikoteentzat diseinatutako dantzak iritsi ziran Euskadira, kontradantzagaz gertatzen zan bezala taldean koreografiak egin behar izan barik, bikoteei mugitzeko askatasuna emoten ebezenak. Kontaktu fisikoa eskatzen eben dantzak, eskuak zapi barik ikutzea edo soka-dantza bezalako dantzen kolpe erdi diskretuak zantartzat hartzen ziran garai haietan.

Pedro de Madrazo margolari eta arte kritikari espainiarrak XIX. mendean utzitako deskribapenak bezalakoak, Auñamendi Eusko Entziklopediak (Eusko Ikaskuntza) jasoak, garaiko pentsamoldearen ideia bat emoten deusku: *"...Ustekabean harra-patutako euskaldunak, zortziko dezentea eta garbiaren, aurreku zintzoaren eta gizonetzkoen espatadantzaren asmatzaileek, dantza zikin hareek lege oneko txanpontzat hartu dabez, eta guztia, gorteko jendeak onartu dabeelako bakarrik, zein jendeak onartu dabeen konturatu barik"*. Kanpotik ekarritako dantza be izan zan fandangoa,



Erromeria batean 1950 inguruan. **Argazkia:** Aldaba





Jota bat 1941-1942 ingurua, Gernika-Lumoko La Unión paseoan, gaur egungo Pasealekua.. **Argazkia:** Aldaba.

bikoteagaz dantzatzeko bazan be, soltean egiten zanez, ez egoan hain txarto ikusita, hasiera batean bere aurkariak be izan ebezan arren. Hala deskribatu eban Wilhelm von Humbolt "Euskaldunen laguna" linguista alemaniarrek, 1801ean, Euskadira egindako bidaietan bere folkloeari be erreparatuz: *"Euskal Herriko fandangoa da dantza naturala, zakarra, primitiboa esan leike, baina lotsabakoa eta lizuna be (baina ez oro har eta esentziaz, baizik eta dantzari batean edo bestean bakarrik), baina inoiz bez labangarria."* (Añamendi Eusko Entziklopedia- Eusko Ikaskuntza).

XIX. eta XX. mendeen artean, mugimendu kultural eta politikoa oso handia izan zan dantzen inguruan eta berbenetan zein erromerietan jotzen eben instrumentuek be euren garrantzia hartu eben. Akordeoia, adibidez, ez zan euskal instrumentu zat hartzen, baltseoari lotuta egoalako. Baltseoaren inbasioa, gazteentzat hain erakargarria zana, gurutzada baten bizitasunegaz borrokatu zan, txistulariek ez

eben baltseorik jotzen, eta baserri giroetan, trikiti, akordeoi eta pandereta hirukote edo bikoteek, baltseoaren alde egiten eben. 1928an Txistulari Elkartearen Txistulari aldizkarian adoktrinau egiten zan tangoak ez jotzeko, ez habanerak, ez fostrotak, *"hori ez da txistulariena, ez kristaue-na, ez euskaldunena"*. Askok hartzen eben txistua eta tanbolina euskal dantzaren benetako espirituaren ordezkari lez. ez ordea akordeoia eta gaita, naturaltasun handiagoz hartu ebezelako pasodoblea edo tangoak bezalako moda barriak.

Baltseoaren modalidade ezbardin artean Euskadin balsa eta kontradantza ziran nagusi, azken hau Bizkai dantza izenez be ezaguna. Kontradantza, Ingalaterra eta Frantziatik jasotakoa, taldean egiten zan, bikoteak aurrez aurre jartzen ziran eta koreografia markatuak dantzatzeko ebezan. Dantzariak elkarri eskua emon, korroak egin eta elkar gurutzatzen ziran.

### PARRANDAN GOAZ!

*"Soltean egiteko dantzari "soltie" esaten eutsen eta helduta dantzatzekoak "balsioa" edo "baltseoa" Balsak, pasodobleak, txotisak sartzeari dagokionez...";* azaldu dau Gernikazarrako Vicente del Palaciok. Berak, Gernika-Lumo bezalako herrietako baltseoaren gorabeherak kontatzen deuskuz. Bertan, *"agertzen dira "Farrak" edo parrandak, erromerietako kanon klasikoetatik aldentzen zan musika estiloa, gaur egungo rock jaialdien antzekoa, jende zintzoak ulertzen ez ebeena"*, azaldu dau. Dantza barri hauen aurkakoez ez eben etenik izan dantza hauek desagerrarazteko ahaleginean, Gernikazarratik azaldu dabenez, 1922an jaietan "farrak" bertan behera uztea eskatu eben, baina alkateak berak bertan behera uztea ezinezkoa zala ikusi eban, ez baitzuten espazio egokirik "bertan entretenitzen diran pertsonak sartzeko". Neurriaren aurkako zinegotziek, ordainetan, "Farretan" dantza solterako piezak jotzera behartzeko eskatu >>>

eben, hala nola jotak eta porrusaldak. Gernika-Lumoko "farrak" Errialekuan egiten ziran, bai jaietan, bai azoka garrantzitsuetan, hala nola Urriko Azken Asteleheneretan, eta kexak be egoten ziran orduan. "1929ko Urriko Azken Astelehenean "farrak" barrio agertu zirela esaten zan, Barrio agertzearen arrazoia herriko establezimendu batzuen eskaera izan da, bertan behera uzteak baserriarren etorrera asko murrizten dauela argudiatuaz", azaltzen dau Vicente del Palaciok.

"Itsuen korroak" bezala be ezagutzen ziran "farrak", hauetan akordeoia (farrea), dultzaina edo gitarra eskuan hartuta, panderoa lagun ebala eta kobratzaileagaz, bere musika jotzen eban musikariak jaiak animatzeko, eta, bere inguruan, dantzan ari zan jende multzo bat sortzen zan. "Panderoak dantzaldia animatzen eban koplakaz, eta kobratzaileek dantza-ziklo bakoitzeko dantzarien dirua batzen eban, txartel bat ezarriz. Musikari hauek dantza tradizionalak jotzen hasi ziran (jota eta porrusalda) eta azkenik, dantza modernoagoak jotzen ebezan, hala nola, pasodobleak, balsak, txotiak eta tangoak. Famatuak izan ziran Julian Azurmendi, "Katxarero" bere dultzainagaz, Leon Oar, bere akordeoiagaz inauterietan, San Roketan eta Santa Agedan, pandereta edo Jazband (bateria) Atxikek lagunduta ", azaldu dabe Gernikazarratik.

Gerra garaian eta gerraostean, bi aldeek bat egin eben dantza soltearen moraltasunean goraiatzeko, baltseo lizunaren aurrean, udal bandoen bitartez debekatuz azken hau: "Plaza publikoan ez da onartuko baltseo bere izaera exotiko eta ziki-

nagatik, Moral Katolikoaren araukaz bat ez datorrena, Nazio Katoliko batean onargarria dan moral bakarra. Jaiak girotzeko eta legezkoak diran dantzaldietan, tanbolina besterik ez da onartuko "

Hala eta guztiz be, geure herrietako jaietan, erromeriak herritar guztien topagune izan dira, batez be gazteentzat. Koadrilek dantza haiek gertaera sozial bihurtzen ebezan, Bizkaiko zenbait tokitan, txitxarri-lloak be deituak. "50-60ko hamarkada inguruan, herrietako erdigunetik urrun bizi ziran baserrietako neskatok abarketan egiten eben berbenara joateko bidea, igandeetako zapatak lepoan eramanez. Eta dantzagunera iritsi aurretik abarkak heskaietan ezkututzen ebezan, zapata onak jarriz ", gogoratzen dabe nostalgikoenek.

Baina, egia esan, denborak aurrera egin ahala, beste garai batzuetan hain txarto hartutako dantza hoiek geure kultura-ondarearen eta geure oroimen kolektiboaren zati banaezinak bihurtu dira. Izan be, berbena eta erromeria arratsalde harek maitasunez gogoratzen dira. Dantza sozialak ziran, bertan gazteek dantza egiten eben, jotak, pasodobleak... euren arteko harremanak sendotuz eta asteburuetan zein jaietan dibertidu egiten ziran. **UM**

Baltseoaren modalidade ezbardin artean, Euskadin balsa eta kontradantza ziran nagusi, azken hau Bizkai dantza izenez be ezaguna.



**E**  
EGUREN

OPTIKA

ENTZUMEN ZENTROA



GERNIKA-LUMO  
Domingo Bernaola, 1  
94 625 03 23 / 94 625 04 51

MUNGIA  
Aita Elorriaga, 20  
946156636



**AUZOKOA**  
**TABERNA**

Ostadar  
zaporetzua

Pablo Picasso Kalea, 9  
Gernika-Lumo  
Tel. 94 625 16 66



*Bisita gaitzazu!*

## Arratzu Elkartegia Langunea

Arratzuko erdigunean. Ekintzaileentzako edo enpresentzako gune partekatua.

En el céntrico barrio Loiola de Arratzu. Un espacio de uso compartido para emprendedores y/o empresas.



ARRATZU ELKARTEGIA LANGUNEA

# ELKARTEGIAK

*Busturialdea-Urdaibain zure proiektua garatzeko eta zeure enpresa sendotzeko behar duzun espazioa. Abantailaz betea.*

*El espacio que necesitas para desarrollar tu proyecto y consolidar tu empresa en Busturialdea-Urdaibai. Una oportunidad ventajosa y atractiva.*

*¡Visítanos!*

## Gernika Elkartegia

Industria-moduluak, bulegoak eta espazio partekatuak dituen enpresa-zentroa, herriko erdigunetik bost minutura, oinez. Ekin hemen zure negozioari, garatu hemen zure proiektua.

Un centro para empresas dotado de módulos industriales, oficinas y espacios compartidos, a cinco minutos, a pie, del centro urbano. Emprende aquí tu negocio, desarrolla aquí tu proyecto.



GERNIKA ELKARTEGIA

# Konektaturik



*Foru Aldundiak Bizkaiko txoko guztietara darama banda zabala, Bea bere senideengandik hurbilago egon dadin.*